

# Barrena

## Samina errepidean

Bost foruzain hil dira Elgoibarren, AP-8 autobidean, zisterna-kamioi baten eta foruzainen furgoneta baten arteko trafiko istripuan / 3



AP-1erako irteera pasatu eta metro gutxira izan zuten istripua bi ibilgailuek, Bilborako noranzkoan; argazkian, bi ibilgailuak errepidean gurutzatuta. ASIER ORBEA

### ELKARTASUNA

## Gipuzkoako Elikagaien Bankuaren bilketa handia gaur eta bihar / 2



Joan den udazkenean egin zuten kanpainaren argazki bat. AINARA ARGOTIA

### OSASUNA

## "Uste nuen laguntza behar zuena senarra zela, alkoholikoa hura, eta ez ni"

Al-Anon eta Alateen alkoholikoen senide eta lagunaren elkarteek batzar informatiboa egingo dute Mendaron hilaren 12an / 4

### INGURUMENA

## Bukatu dituzte Ermua eta Mallabia arteko saneamendu-sareko lanak

Elgoibarko Apraizko araztegiara bideratu dituzte Mallabiko Goitondoko industrialdeko eta Arandoño auzoko hondakin-urak / 18

### AISIALDIA

## Kirola eta jaiak, eskutik Soraluzeko Triatoloian / 21



UBANE MADERA ZANGITU



# "Elkartasun-sarea indartzen jarraitzeko balioko du gaurko eta biharko kanpainak"

JOSE MARI BEITIA

ELIKAGAIEN BANKUKO BERGARAKO EGOITZAKO ARDURADUNA

Udaberriko elikagai bilketa handia egingo du gaur eta bihar Gipuzkoa osoan Elikagaien Bankuak

**Ainara Argoitia** DEBABARRENA

Iaz, 15.530 pertsonari lagunduzien Gipuzkoako Elikagaien Bankuak lurralde osoan, baina premian direnak gero eta gehiago dira, eta haiei lagundu ahal izateko egingo dute udaberriko kanpaina handia.

**Elikagaien Bankuan urte osoan ari zarete lanean. Zer da, zuzentzat, udaberriko kanpaina hau?**

Guk elikagaiak batzeko bi kanpaina handi egiten ditugu urtean: bata, udaberri, orain, eta bestea, udazkenean, azaroan. Kanpaina handi horietan, epe laburrean galtzen ez diren elikagaiak batzen ditugu, urte osorako. Hala, gaur eta bihar, Gipuzkoako supermerkatu guztietan eta denda askotan egongo dira gure boluntarioak, herritarrei poltsak banatu eta haiek eskuzabalatasunez emango dizkiguten elikagaiak kaxetan sartzen. Elkartasun-sarea indartzen jarraitzeko ere balioko du kanpainak, behar-beharrezkoa dugulako Gipuzkoako familia askori laguntzeko. Zuzenean elikagaiak eman ordez dohaintza ekonomikoa egin nahiago duenak ere izango du horretarako aukera. Eman dai-teke dirua ere dendetan, bonu solidarioen bidez. Urtean zehar behar ditugun elikagaiak erosteko baliatzen dugu diru hori guk. Nolanahi ere, kanpainaz kanpo ere badago Elikagai Bankuari laguntzeko aukera, eta horren inguruko informazio guztia gure webgunean esku-

ratu dezakezue: [bancoalimentosgipuzkoa.org](http://bancoalimentosgipuzkoa.org).

**Halere, kanpaina lagundu nahi duenak beste aukerarik ere badu, ala?**

Bai, hori da. Boluntario gisa ere lagundu dezake jendeak, eta, egia esateko, jende falta handia dugu. Gipuzkoan bi zentro daukagu: bata, Oiartzunen, eta bestea, Bergaran. Bergarakoak Debagoieneko, Debabarreneko, Goierri osoko eta Zumaiatik hasi eta Legazpirainoko Urolako herri guztiei ematen die zerbitzua. Gutxi gorabehera, Gipuzkoan batzen diren elikagaien %30 inguru banatzen ditugu guk Bergaratik, eta gainerakoa Oiartzundik banatzen dute. Gure bi zentro horietan 200 bat boluntario aritzen dira lanean urte osoan. Boluntario iraunkorrak dira haiek, asko eta asko edatetuak –batez besteko adina 70 urtekoa da–, baina, haiez gain, aldi behingo boluntarioak ere behar-beharrezko ditugu. Adibidez, orain, beste mila bat lagun behar ditugu kanpaina honetarako, dendetan egoteko eta herritarrei kanpainaren beraren eta gure egitekoaren inguruan azalpenak emateko. Aldian behingo boluntarioak beren herri inguruan arituko dira gaur eta bihar, pare bat orduz-edo, elikagaiak jasotzen. Ahal duten neurrian laguntzen dute boluntarioek.

**Zer jaki batzen dituzue, bereziki?** Hiru elikagai mota jasotzen ditugu: batetik, elikagai lehorrak



Jose Mari Beitia, Bergaran, Elikagaien Bankuaren biltegian. LAGATAKOA

edo ez galkorrak deitzen ditugunak daude; bestetik, egunean bertan batzen ditugun elikagaiak, azken minutukoak, elikagai freskoak; eta, hirugarrenik, Espainiako Nekazaritza Ministerioak emandako produktuak daukagu. Eusko Jaurlaritzak jasotzen ditu elikagai horiek eta guri ematen dizkigu banatzeko. Joan den astean, esaterako, nektarinak jaso genituen. Azken horiek hilean bitan banatzen ditugu.

Begarako egoitza bideratzen dugu guk banaketa. Produktu lehorrak hilean behin banatzen ditugu, eta horiek dira, hain justu ere, udaberriko eta azaroko kanpainetan batzen ditugunak. Hala ere, kanpaina horietan ez da, normalean, behar beste jasotzen, eta enpresek eta norbanakoek egindako diru ekarpenarekin erosten ditugu hain beharrezko laguntza ekonomiko hori, horren arabera gutxiago edo gehiago izango delako premian diren pertsonen hilero jasoko dutena. Azken minutuko produktuak, berriz, egunean bertan jaso eta banatzen ditugu. Hitzarmenak eginak

daukagu Gipuzkoako supermerkatu eta dendekin, eta gure furgonetak egunero pasatzen dira denda guztietatik, sobera dituzten elikagai freskoak jasotzera. Gero, Oiartzungo egoitzara eramaten dituzte, edo hona ekartzen dituzte, Bergarara, eta gure boluntarioek apartatzen dituzte hortik jendeari emateko moduan daudenak, baztertze daudenak botata. Produktu horiek egunean bertan banatzen dira.

**Apirilaren 2an onartu zuen Espainiako Gobernuak elikagai xahuketaren kontrako legea. Zer inplikazio izan ditu lege horrek zuen egitekoan?** Araudi horren helburua elikadurakate osoan elikagai gutxiago xahutzea da, eta neurri argiak ezartzen ditu: prebentzio-planak izateko betebeharra, giza kontsumorako dohaintza lehenestea eta elikagai soberakinak hobeto

kudeatzea enpresetan, saltokietan eta ostalaritzan. Badakigu, beraz, on handia egingo duela, baina oraindik findu beharra daude gauza batzuk. Hor daukagu, adibidez, B plana esaten dutena, ikuskera aldaketa hori errazteko sortu dutena. B plan horrek aukera ematen die enpresei legea erraz betetzeko eta, aldi berean, lurraldean benetako inpaktua sortzen duen gurea bezalako sare solidario baten parte hartzeko. Lege indarrean jartzeak, beraz, lankidetzari berrak bultzatu ditu. Gero eta enpresa gehiagok bat egiten dute soberakinak hobeto kudeatzeko eta modu arduratsuan laguntzeko, eta Gipuzkoako Elikagaien Bankuak laguntza eskaintzen die prozesu horretan, bilketa eta entrega ahalbidetzen duten boluntario-sarea eskainita. Aurtentzen hasi gara horrekin, eta momentuan ez daukagu daturik emateko.

**Ba al dago hartzaileen profil jakinik?**

Datu batzuk badauzkagu, baina, egia esan, oso aldakorrek dira, eta ez du merezi ematea. Hala ere, gauza bat esango nizuke: gero eta gehiago hemengo bertako jendeak eskatzen du gure laguntza. Euskalduna ez da sekula laguntza eskatu zalea izan, eta kosta egiten zaio jende bati, baina derrigorrek ekartzen dituguna, seme-alabei jaten eman beharrik. Lehen, gehiago ziren etorkinak, eta orain ere bai proportzioan, baina gero eta gehiago dira hemengoak bertakoak. Eskatzaileen kopuruak ere gora egin du: pandemia aurretik, 13.000 bat lagun ematen genien laguntza, eta pandemiako urteetan kopuru horrek 25.000ra egin zuen gora. Gaur egun, pandemia aurreko datu antzekoetan gabilitza. Iaz, esaterako 15.530 laguni eman genien laguntza Gipuzkoan, eta guztira 2.056.000 kilo elikagai banatu genituen. Nabarmendu behar dugu, baina, Elikagaien Bankua ez dela pertsona haientzako irtenbide bat, baizik eta laguntza txiki bat. Gaur egun, hilean 12,5 bat kilo elikagai banatzen ari gara pertsonako.

**"Gaur egun, hilean 12,5 bat kilo elikagai ari gara banatzen pertsonako"**

**"Iaz, 15.530 laguni eman genien laguntza Gipuzkoan, guztira 2.060.000 kilo jaki banatuta"**



Ezbeharra izan zuten bi ibilgailuak, errepidean. Kamioia errepidean trabestuta, eta furgoneta, ertzainen toldoak estalita. ASIER ORBEA

# Bost foruzain hil dira Elgoibarren AP-8 autobidean izandako trafiko istripuan

Zisterna-kamioi baten eta foruzainen furgoneta baten artean gertatu zen istripua, eguazten goizean, Bilborako noranzkoan, eta bost poliziak lekuan bertan hil ziren. Kamioiko gidaria, berriz, zaurituta ospitaleratu zuten

**Ainara Argoitia** ELGOIBAR

Zisterna-kamioi baten eta furgoneta baten arteko trafiko istripu larria gertatu zen eguazten goizean Elgoibarren, AP-8 autobidean, eta furgonetako bost bidaiariak ezbeharra izan zuten lekuan bertan hil ziren. Foruzainak ziren bostak, eta Ertzaintzaren Iurretako (Bizkaia) basera bidean zihoazen praktikak egitera, Ertzaintzak berak gonbidatuta. Kamioi gidaria, berriz, Arrasateko ospitalera eraman zuten, helikopteroz, eta handik Donostiakora gero. 09:15 aldera gertatu zen istripua, Bilborako noranzkoan. Kamioia bidean

trabestuta gelditu zen, erdibitzailearen gainean, Donostiako noranzkoko bi erreiak okupatzen, eta, ondorioz, autobidea itxita izan zuten goiz erdira arte bi noranzkoetan. Donostiako noranzkoa eguerdirako zabaldu zuten, lehenengo errei bat eta gero biak, baina Bilborako no-

**Bost foruzainak  
Ertzaintzaren  
Iurretako basera  
zihoazen material  
batzuk probatzera**

ranzkoan, ezkerreko erreil bat itxita izan zuten gauera arte, harik eta kamioia erretiratu eta bidea garbitu zuten arte.

AP-1erako irteera pasatu eta metro gutxira gertatu zen istripua, Bilbora bidean, 69. kilometro parean. Ikustea aski zen gertatutakoaren larritasunaz jabetzeko, eta luze gabe jakinarazi zuen Ertzaintzak hildakoak ere bazirela tartean: bost. Ertzaintza, bi ambulanzia medikalizatu, Azpeitiko eta Eibarko suhiltzaileen lau ibilgailu eta helikoptero bat mobilizatu zituzten erreskate lanetan laguntzeko, baina ezer

berak izan zuen lehendabizi istripua. Lekuko horien beren arabera, gertatutakoa ikusi eta furgoneta saihesten saiatu zen kamioia, baina ez zuen lortu.

## Dolumin-mezuak

Albistea zabaltzeaz batera zabaldu ziren lehen erreakzioak ere. Nafarroako lehendakari Maria Txibitek nahigabea agertu zuen gertatukoaz bere sare sozialetan, eta doluminak eman zizkien hildakoen senide eta gertukoiei. Antzeko hitzak egin zituen Unai Hualde Nafarroako Parlamentuko presidentek ere, bai eta Jaurlaritzako lehendakari Imanol Pradalesek ere. Tristura eta samina agertu zituen Pradalesek, eta atsekabeen lagun zituela esan zien hildakoen senitarteko eta lagunei, bai eta Foruzaingoari, Nafarroako Gobernuari eta Ertzaintzari ere.

Foruzaingoak berak ere oharra argitaratu zuen: "Gure maitasun eta babes osoa helarazi nahi diegu hildako lankideen senide eta hurbilekoei; min sakona partekatzen dugu haiekin, gure memorian arrasto ezabaezina utziko duena. Era berean, eskerrak eman nahi ditugu Nafarroako bertako nahiz kanpoko eremu askotatik jasotako dolumin-adierazpenengatik. Azkenik, oso eskertua gaude Ertzaintzako lankideekin eta ondoko autonomia erkidegoko agintariekin, une oro emandako laguntzagatik". Lerro hauek idazteko unean ez zegoen ezer zehaztua oraindik, baina Javier Remirez Nafarroako Gobernuko bozeramaileak jakinarazia zuen ekitaldi instituzional bat prestatzen ari zirela, hildako "bost zerbitzari publikoei azken agurra emateko".

gutxi egin ahal izan zuten haiek. Nafarroako Gobernuak zehaztu zuen, gero, hildako poliziak Nafarroako Foruzaingoaren Esku Hartze Bereziko Taldekoak zirela, eta Ertzaintzaren Iurretako basera zihoazela hainbat material probatzera. Bost foruzainen gorpuak Auzitegi Medikuntzako Euskal Institutura eraman zituzten, autopsia egiteko. Izan ere, edizio hau ixteko orduan, istripua zerk eragin zuen ikertzen ari zen Ertzaintza. Hala ere, eta zenbait lekukoren arabera, furgonetak



Istripua izan zuten ibilgailuak, errepidean. ASIER ORBEA

# Taldearen babesa, aurrera egiteko indarra

Al-Anon eta Alateen alkoholikoen senide eta lagunen elkarteek batzar informatiboa antolatu dute Mendaron ekainaren 12rako

**Ainara Argoitia** MENDARO

Taldearen indarrak lagundu die aurrera egiten Marisoli eta Beleni –asmatutako izenak dira–. Alkoholikoak zituzten senarrak biek, eta Al-Anonen, alkoholikoen senideei eta lagunei laguntzeko elkartean, topatu dituzte bizi izan zutena ulertzeko eta izendatzeko hitzak, bai eta aurrera egin ahal izateko makuluak ere. Al-Anonen bilkuretan parte hartzen dutenean bezala, lekukotasunak anonimoz ematea da beren baldintza, garrantzitsua ez delako nor diren esatea, ezpada alkoholarekin arazo bat izan zutela eta aurrera egin zutela nabarmentzea.

Urte askoan ari dira Marisol eta Belen Al-Anonen batzarretara joaten. Hantxe sentitzen dira babestuak eta konprenituak, eta hain zaie lagungarria taldeak ematen diena, ezen deitzen dituzten toki guztietara joateko prest dauden informazioa ematera, min handia ikusten dutelako inguruan, alkohola hain normalizatua dugun gizarte honetan. Min hori bera partekatzen dute Al-Anonen anaidia diren Alateen taldekoek ere. Hurbileko pertsona baten edateko moduak eragin dien 18 urtez azpikoen taldea da Alateen, eta Al-Anonen eta bien artean antolatu dute ekainaren 12an Mendaron egiteko asmoa duten batzar informatiboa. Bi talde horien lan-dinamikaren berri emateko batzarra izango dela aurreratu dute, baina bilkuran Olatz Aizpuru herriko medikuak eta Alkoholiko Anonimoetako kide batek ere parte hartuko dutela zehaztu dute. Esperientziak dakite ez dela jendetza handirik batuko ekainaren 12ko deialdira, oraindik ere lotsa eta beldurra oso sentimendu zabalduak direlako alkoholarekin arazoren bat dutenen –edo izan dutenen– artean. Bizi izan zuten hori gure protagonistek ere luzaroan, eta ulertzen dituzte, jakina, egoera horretan sentitu daitezkeenak, baina animatu dituzte parte hartzera, azpimarratuta batzar horretan esango den guztia han geldituko dela, anonimotasuna zaintzeko konpromisoa ezinbes-



Al-Anon elkarteko kide bat, elkartearen eskuorri bati eusten. AINARA ARGOITIA

tean bete beharreko baldintza delako taldean.

Batzarra udaletxeko udalbatza-aretoan egingo dute, 18:00etan hasita, baina telefono-zenbaki bat ere laga dute, hara joan beharra duela sentitu arren behar beste adorerik biltzen ez duen horrentzat: 650 26 59 63. "Laguntzeko gaude, guri ere beste batzuek lagundu zigutelako egin ahal izan dugulako aurrera. Irabazi-asmorik gabeko taldea da gurea, autofinantzatua, boluntarioz osatua. Geu gara boluntarioak, entzuteko gaudenak. Ez dugu inor epaitzen, ez dugu aholkurik ematen, ez dugu inor ezertara behartzen, baina gure besoak zabalik daude behar gaituen edonorentzat", esan dute.

## Gaixotasuna dela onartzea

Gure gizartean oso presente dago alkohola sozializatze egoera, askotan, eta hori traba handia da alkoholarekin arazoak dituenarentzat, bai eta haren inguru gertuarentzat ere. Isilean

**Mendaroko  
udaletxeko  
udalbatza-aretoan  
izango da bilkura,  
18:00etan**

eramaten den mina izaten da, sarritan, alkoholak eragindakoa, besteen begietara nabarmena izanda ere. "Kalean jende guztiak dakien arren gure senide horrek edan egiten duela, guk, sarri, ezkutatzeko joera izaten dugu, isiltzekoa. Guk geuk direnak eta bi esan arren etxekoari, ez dugu onartzen beste inork ezer esaterik. Gorrotoa hartzen diogu alkoholarekin arazoa duen etxeko horri; jasangaitza egiten zaigu, eta edanda datorren bakoitzean eskailetan behera hankaz botatzeko tentazioa ere sentitzen dugu. Hura anestesia-tua dago, baina gu ez gara bizi; eragiten digun mina eta auzo-lotsa hain dira handiak, ezen kontra egiten diogun ahal dugun guztian, eta, askotan, anulatzeraino baztertzen dugu". Normalean, hark ukatu egiten du arazoa duela, eta "zoratzerraino" gaixotzen dira senideak. Eta, halako batean, gerturatzen dira Al-Anonen bilkura batera norbaiten eskutik-edo, eta han entzuten dute alkoholismoa gaixotasun gisa sailkatua duela ofizialki Osasunaren Mundu Erakundeak. Alegia, alkoholarekin arazoa duen bat ez dela "biziotsu amorragarri bat", baizik eta gaixo bat, laguntza behar duen pertsona bat, eta lagundua izatea beharko duena luzaroan,

alkoholismoa bizi osorako gaixotasuna baita.

## Gaixotasun apartekoa

Ez da, ordea, beste gaixotasunak bezalako gaitz hori, beste edozer duenak nekez jarri ohi duelako zalantzan diagnostikoa, baina alkoholikoak, gehienetan, ukatu egin ohi du arazoa duela. "Begi-bistakoa izanda ere, joera izango du arazorik ez duela esatekoa; gezurretan ibiliko zaigu, askotan, disimulatzeko baina handiagoa izanda ere duen arazoa. Eta hasiko gara modu desesperatuan harentzako laguntza bila. Nire kasuan ere hala izan zen. Senararentzako eskuorrien bila joaten nintzen batera eta bestera, baina neuk ere behar nuen laguntza. Nik enpatizatu egiten nuen alkoholikoen senideekin, baina uste nuen laguntza behar zuena senarra zela, eta ez ni. Egia da gaixoa bera Alkoholiko Anonimoetara joaten bada amesgaiztotik irteteko prozesua errazagoa dela, baina gu ezin gara horren zain egon, geu ere gaixotuak gaituelako haren adikizioak. Guk geure burua zaindu behar dugu, pertsona horrek bere burua zaintzeko pausoa eman edo ez". Aitortu dute taldera batzen diren guztiek pentsatu ohi dutela eurei bakarrik gertatzen zaiela gertatzen ari

zaiena, baina taldera batutakoan jabetzen direla ez daudela bakarrik eta beste askori ere gertatzen zaizkiela antzeko egoerak edo okerragoak. Denek partekatzen dute min bera, eta ulerkorrago eta enpatikoago egiten ditu horrek parean dutenarekiko.

Al-Anonen eta Alateen saioetan protokolo bat jarraitzen dute. Lehenengo pausoa alkoholikoa gaixoa dela onartzea izan ohi da, eta, gero, gaixoa nola tratatu ikasten dute, "gorrotoa, amorrua, higuina eta antzeko sentimenduak baztertzen. Alkoholikoarekin nola hitz egin behar dugun ikasten dugu, etxeko egoera eta giroa ahalik eta ondoen kudeatzen. Azken batean, gure sentimenduak kontrolatzen ikasten dugu, eta hori pertsona horrekiko bakeak egiteko ez ezik bizitzarako ere oso irakaspen ona da", aitortu dute. Konfiantza da horretarako gakoa, eta lehen egunetik bertatik sentitu zuten hori Al-Anonen. Nork beretik hitz egin ohi du han, errespetuz, elkarri entzunez eta elkarrengandik ikasiz. Azaldu dute irakurgai batzuk izaten dituztela lantzeko, eta haien inguruan hausnartzen dutela gero. Belenek aitortu du *Jainko* hitza oso presente egoten dela bilkuretan, baina *Jainko* horrek ez duela zerikusirik erlijioarekin. "Bakoitzak nahi dugun moduan ulertzen dugu Jainkoa. Niretzat, adibidez, taldearen indarra da".

## Informazio gehiago

- 650 26 59 63
- [info@al-anonespana.org](mailto:info@al-anonespana.org)
- Arrate taldea (Eibar). San Andres parrokiako lokaletan: Toribio Etxeberria 26
- Orduetgia: astelehenetan, 19:00etatik 21:00etara



Al-Anon  
webgunean  
duzue informazio  
gehiago



EUSKALGINTZAREN  
KONTSEILUA

# EUSKARAZ BIZITZEKO BEHAR DEN DENA

## EUSKALTZALEON MARTXA

- OFIZIALTASUN OSOA
- JAUZIA HIZKUNTZA POLITIKETAN
- EUSKALTZALETASUNA

EKAINAK

# 13 > IRUÑEA

ASKATASUN  
ENPARANTZA  
17:00etan

ANTONIUTTI  
PARKEA  
17:00etan

RUNAKO  
PARKEA  
17:00etan

EKITALDIA  
GAZTELUKO  
PLAZAN

## Autobusa Debabarrenetik



NIRE USTEZ

## What's up, Osakidetza?



DAVID LINDEMANN  
EHU-KO IRAKASLEA

Erdarazko SMSa heldu zitzaidan joan den astean, Osakidetzatik. Haiekin Whatsapp bitartez harremantzea proposatu zidaten, nire osasunari lotutako berriak jasotzeko. Osakidetza web plataforman zerbitzu berria onartu edo baztertzeko aukera nuela.

Burura etorri zitzaidan lehen gauza: Kaliforniako tekno-oligarka ultra-aberatsa da Zuckergerg. Thiel bere lagunaren Palantir enpresarekin eta, immigranteak topatzeko, ICE poliziarekin erabiltzaileen datuak partekatzen ditu; bere plataformetan zionista hitza debekatu zuen; Hawaii azpian bere buruarentzat makrobunkerra sortzen ari da... Gizon horren bildumetan falta zena, gure osasuneko datuak? Benetan?

Bigarren gauza:

adierazitako sareko helbidera joan. Zerbitzua onartzeko aukera bai, baina baztertzekoa ez nuen aurkitu. Serio zabiltzate?

Aspaldi nabil Ipar Amerikako teknofeudalisten plataformetan izena eman

### "Erabiltzen diren sistemak norenak diren galdetu beharra dugu"

beharreko premiarekin haserre, nire medikua horrekin hasi baino lehen ere, lanean eta aisialdiko jardueretan. Eta, izan ere, Whatsappi boikot egitea erabaki nuen orain dela urte batzuk. Bi urte iraun nuen greban. Gero, semeen arratsaldeko jardueraz ez nintzelako behar bezala eta behar bezain pronto jabetzen, *app* hori instalatzera bultzatu ninduten. Benga, ba: nire agenda, kontaktuak, harremanak, denak Zuckerbergen disko gogorretara. Dena ematen ez badiozu ez baitabil.

Teknologia berriak ez dira berez txarrak, nik ere semeen futbol taldeko gurasoekin *txata* izan nahi dut, eta, agian, medikuaren txanda modu erosoan jaso. Baina erabiltzen diren sistemak norenak diren galdetu beharra dugu. Zergatik jo behar dugu Kaliforniako faraoi batengana? Nik uste dut tokiko eragileen txanda dela, tokiko aukerak sortzeko. *Barrena.eus* bezalako eragileenak. Sor ezazue *matrix* protokolo librea darabilen komunikazio-zerbitzaria, eta eman *@barrena.eus* domeinuan erabiltzaileak eta *txat* kanalak erraz sortzeko aukera, telefono-zenbaki pribatua eman gabe... Polita litzateke. Zuckerbergen eta lagunaren enpresen orbitatik at. Arnasa hartzeko. Hor osasuna.

GUTUNAK

## Eskerrik asko

DEBEMEN ELKARTEA  
ELGOIBAR

Debemen Elkarteak eskerrak ematea nahi dizkie trinitateetako azoka antolatzen lagundu zuten guztiei. Batez ere, egunean bertan dastaketa prestatu, banatu eta bazkaria zerbitzatzera etorri ziren landa inguruneko auzoetako boluntario guztiei.

Eta, nola ez, Armueta Harategiko Angeli eta familiari ere gure eskerrak beroenak, eskaini eta ematen diguten laguntzagatik eta erraztasun guztiagatik.

## Etenaldia, berriz ekiteko

24/7 PLATAFORMA  
ELGOIBAR

Elgoibarko 24/7 Plataformak irailaren 30era arte eten ditu elkarretaratzeak, eta Osakidetza nariaduraren aurrean mobilizazio handi bat prestatzen ari da. Elgoibarko 24/7 Plataformak urteak daramatza anbulatorioko larrialdi-zerbitzua eguneko 24 orduetan eta asteko 7 egunetan martxan egotea eskatzen, eta batzarrean erabaki du udako hilabeteetan elkarretaratzeak etetea. Etenaldiak irailaren 30era arte iraungo du, asteazkena.

Pandemiaz geroztik ohikoa den bezala, elkarretaratzeak hilabete bakoitzeko azken asteazkenean egiten dira. Udako etenaldiaren ondoren, Plataformak batzarra egingo du, eta berriz abiatuko ditu harremanak urte hauetan

guztietan babesa eman diguten elkarte eta talde guztiekin.

Etenaldi hori ez da atzerapauso bat. Osakidetza nariaduraren etengabeko nariadurak –ebakuntzetan, azterketetan eta bestelako zerbitzuetan pilatutako atzerapenekin– udazkenean mobilizazio handi bat prestatzera behartzen gaitu. 24/7 Plataformak herritarrei dei egiten die datozen deialdien adi egon daitezen

## Dena da herria

MARIAN BEGIL  
SORALUZE

Duela gutxi, negazionista eta presen lagun deitzen gintuzten ahotsen arabera, Soraluzen presak mantentzeak (GDI eta gogaideak) eragin zezakeen uneren batean uholdeak sortzea, eta presak mantendu nahi izateagatik kalteak itzulezinak izatea.

Zer deritzote haiek Gabolatseko uharte ezagunean sortu den Amazoniako oihanari buruz?

Han metatzen diren sedimentuez eta haizeek astintzen dituztenean etxe gainera erori eta hausteko arriskuarekin kulunkatzen diren zuhaitz garaiez?

Inork ez dio bere buruari galdetzen norena izango litzatekeen erantzukizuna?

Udalarena?  
Uraren Euskal Agentziarena?  
Gipuzkoako Foru Aldundiarena?

Agintarien utzikeria hori eta gure ibaia Soraluzetik igarotzean mantendu ez izana, hori bai dela arriskua.

Orain berriro ere garbitzen zaio aurpegia herriari. Eta badirudi ibaia ez dela gure eguneroko paisaiaren parte.

Hauteskundeak hurbiltzen ari direlako ote?  
Ba han ikusiko dugu elkar!

**GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 2.000 (hutsuneak barne). BARRENAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutun edo iritzi-zutabe bati ezin izango dio pertsona berak kapituluka erantzun; gutun bakarrarekin erantzun beharko dio.**  
Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, herria, harremanetarako telefonoa eta nortasun agiriaren zenbakia. Gutuna helarazteko bideak: Aita Agirre Kulturunea 3-3, 20870 Elgoibar / *barrena@barrena.eus*

## Barrena<sup>®</sup>

DEBABARRENEKO KOMUNIKAZIO TALDEA

### Argitaratzailea

Barrena Komunikazio Taldea  
Kooperatiba Elkarte  
Aita Agirre plaza, 3  
20870 Elgoibar  
*barrena@barrena.eus*

### Lehendakaria

Gaizka Azkarate.  
Zuzendari nagusia  
Egoitz Unamuno.  
Eduki arduraduna  
Ainara Argoitia.

### Erredakzio batzardea

Ainara Argoitia, Ubane Madera,  
Ainhoa Andonegi, Izaro  
Aulestiarte.

### Kazetariak

Ainara Argoitia, Ainhoa  
Andonegi, Alex Turrillas, Ander  
Gomez, Asier Orbea, Egoitz  
Unamuno, Izaro Aulestiarte,  
Nerea Bedialauneta, Ubane  
Madera.

### Diseinu arduraduna

Oier Larreategi.

### Zuzentzailea

Sergio Azkarate.

### Kidetzak eta banaketa

Alex Turrillas.

### Maketazioa

Zalora Arnaiz, Oier Larreategi.

### Publizitatea

Leire Rubio.

### HARPIDETZA

Elgoibar 20870  
Aita Agirre plaza, 3  
943 74 16 26  
*harpidetza@barrena.eus*

### PUBLIZITATEA

Elgoibar 20870  
Aita Agirre plaza, 3  
943 74 16 26  
*publi@barrena.eus*

### DEBAKO EGOITZA

Deba 20820  
Ifar Kalea 12, behea  
943 19 13 83

### ELGOIBARKO EGOITZA

Elgoibar 20870  
Aita Agirre plaza, 3  
943 74 41 12

### ERMUKO EGOITZA

Ermua 48260  
Erdikokale 2, 1  
943 17 93 50

### SORALUZEKO EGOITZA

Soraluze 20590  
Errabal 15, 1  
943 75 13 04

### Lege Gordailua: LG D 993-2025

ISSN: 3101-2647

Tirada: 10.500 ale

Inprimategia: Zerua Multimedia

BARRENAK ez du bere gain hartzen aldizkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

### LAGUNTZAILEAK



Debako Udala



Elgoibarko Udala



Ermuko Udala



Mallabiko Udala



Mendaroko Udala



Mutrikuko Udala



Soraluzeko Udala



## 204.000 euroko dirulaguntza emango dio Udalak Elgoibarko Izarrari 2026. urtean

130.000 euro jasoko ditu elkarteak Euskara Siletetik eta 74.000 euro Gazteriatik

### Ainhoa Andonegi

Maialen Gurrutzaga Elgoibarko alkateak eta Amaia Sastre Elgoibarko Izarrako presidentek bi erakundeen arteko lankide-tza-hitzarmena sinatu dute. Sinadura-ekitaldian izan dira baita ere Aitor Iriondo, Euskara eta Gazteria eta Hezkuntza arloetako zinegotzi arduraduna; eta Amaia Lasagabaster, Elgoibarko Izarrako kudeatzailea.

Lankidetzahitzarmen horri esker, 204.000 euroko dirulaguntza jasoko du euskara elkarteak, 2026an zehar euskararen erabilera sustatzeko ekintzak eta haurrentzako aisia hezitzaileko egitasmoa finantzatzeko. Aurreko urteetan bezala, dirulaguntza hori bi udal sailetatik bideratuko da. Horrela, Udalaren Euskara Siletetik 130.000 euro jasoko ditu Elgoibarko Izarrak eta Udalaren Gazteria

eta Hezkuntza Siletetik, berriz, 74.000 euro.

### Aipatzeko ekimen batzuk

Euskara Sailari dagokionez, BARRENA komunikazioak 67.500 euroko laguntza jasoko du; Berbazulo saioetarako eta Tertuliak ekimenerako 23.000 euro emango ditu; eta euskararekiko motibazioa zein erabilera sustatzeko, bestalde, 39.500 euro –familia-transmisioko ekintzetarako, nerabeek euskara batzordeetarako, arlo sozioekonomikoan eragiteko, Batera Elgoibar ekimenerako, Euskaraldirako eta Eguberrietako Bertso Jaialdirako–.

Gazteria eta Hezkuntza Sailari dagokionez, berriz, oporraldietarako –udaberria, uda, negua– 40.000 euroko laguntza jasoko du elkarteak, Saretzen Familia programarako 18.700



Amaia Lasagabaster, Maialen Gurrutzaga, Amaia Sastre eta Aitor Iriondo. A. ANDONEGI

euro, kaleko ekintzetarako 14.800 euro eta formaziorako 500 euro.

### Eskerrak Udalari

Hitzarmena sinatu ondoren, euskara elkarteak eskerrak eman dizkio Udalari. Izan ere,

Elgoibarko Izarraren ustez, "ezinbestekoa da administrazioaren eta herri ekimenaren arteko elkarlana, haurrentzako aisia hezitzaileko eskaintza osatu eta euskara eta euskal kultura gure herrian sustatu nahi baditugu".

### Udako euskara eskolak AEK euskaltegian

Elgoibarko AEK euskaltegiak C1 maila prestatzeko euskara-eskolak emango ditu ekainean eta uztailan, Elgoibarren eta Mendaron.

AEK euskaltegiko ordezkariak azaldu dutenez, ikastaro horretan parte hartzen duten 16-18 urte bitarteko gazteek Eusko Jaurlaritzak ematen dituen dirulaguntzak eskuratzeko aukera izango dute, eta horri esker ikastaroa "ia doan" egin dezaketela adierazi dute.

Ikastaroari buruzko informazio gehiago nahi izanez gero edota izena emateko hainbat bide eskaini dituzte: AEK euskaltegira bertara jo daiteke –Gabriel Kurutzelaegi 10, behea. Toletxegain geltoki parean–; bestela, mezu elektronikoko bat idatzi daiteke [elgoibar@ae.eus](mailto:elgoibar@ae.eus) helbidera, edo 607 60 14 23 telefonora deitu. Izen-ematea hilaren 15a baino lehenago egin beharko da.

### PUBLIRREPORTAJEA

## Alain Afflelou Elgoibarko optikak beste aro bati ekin dio, Iñigo Perez Arozenaren gidaritzapean

Iñigo Perez Arozena optikari elgoibartarra etxera itzuli da, Irlandan zazpi urteko esperientzia profesionala batu ondoren. Herriko lantalde profesional batekin arituko da lanean hemendik aurrera: Ana Sorazu, Nuria Bergua eta Yaiza Martinez, hain zuzen ere.

### Iñigo, eskarmentuz beteta egin duzu itzulia etxera; zergatik Alain Afflelou?

Alain Afflelou aurkezten dituen ezohiko aukerengatik nabarmenduko nuke. Ikusmen- eta entzumen-osasunaren zentro integrala da, eta, punta-puntako instalazioak erabiltzeaz gain, kalitate-prezio erlazio bikainak uztartzen ditu. Hala ere, Alain Afflelouren lema nagusia azpimarratuko nuke, ikusmen-osasuna eskubide bat dela alda-

rrikatzen duen hori, eta ez luxu bat.

### Lema hori praktikara nola eramatean duzue Alain Afflelou?

Finantzaketa erraz eta irisgarriak aurkezten ditugu, Next Year Plan erabiliz edota ordainketa pertsonalizatuarekin, adibidez. Gainera, betaurrekoen eta audiometrien promozio oso ekonomikoak izaten ditugu urtean zehar.

### Urtean zehar promozio oso ekonomikoak izaten dituzuela aipatu duzu; zeintzuk lirateke nabarmenenak?

Tchin-Tchin eskaintza izango litzateke gehien ezagutzen den kanpaina: betaurrekoak erosteagatik, bigarrenak edo, batzuetan, hirugarrenak euro bakar baten truke eraman di-

tzakezu. Horrek esan nahi du familia bereko bi kide betaurrekoak berritu ditzaketela bakar bat ordainduta. MAGIC Bildumak ere indar handia hartu duela esango nuke, hainbat betaurreko erostea saihesten baitu; oinarrizko betaurreko bati klip magnetikoak erantsiz hainbat betaurreko erostea saihesten da. Klip ezagunenak eguzkitako klip magnetikoak, polarizatuak eta pantailen babesgarriak izan ohi dira.

### Alain Affleloura joateko azken arrazoiak aipatzerik?

Gure balio nagusien artean erosotasuna, azkartasuna, efizientzia eta prezioak nabarmenduko nituzke. Gainera, lehen ikusmen-azterketa doan eskaintzen dugu! Hitzordua ziurtatzeko eta itxaron beharrik



Nuria, Yaiza, Iñigo eta Ana, Elgoibarko optikaren sarreran. BARRENA

ez izateko, online ([www.afflelou.es](http://www.afflelou.es)) edo ordua Whatsapp bidez

hartzea gomendatzen dugu: 617 58 30 36.

# Trinitate jaiak, begiratu batean

Lehiaketak, azokak, danborradak, sokamuturra... Oro har, festa izan da nagusi Trinitate jaietan, eta herritarrek gogotik gozatu dute. Asteburuko erretratuak eta bideoak 'barrena.eus' atarian daude ikusgai

## Ainhoa Andonegi

Jai giroa izan zen nagusi aste-buruan Elgoibarren, eta herritarrek gogotik gozatu zuten Trinitate jaietan. Eguraldia lagun, kaleak jendez bete ziren, eguez zein gauez.

Zapatu goizean nekazaritza sektorea izan zen protagonista, eta Elgoibarko baserrietako abereek bereganatu zituzten herritarren begirada guztiak Aita Agirre inguruan. Lekuederko karpan ere Elgoibarko baserriak izan ziren protagonista: Zazpiki elkarteak Elgoi-

barko baserrietako sagardo lehiaketa antolatu zuen, eta Altolabazterra baserriak irabazi zuen, estreinakoz. Aire zabaleko margo lehiaketak partaidetza-errekorra hautsi du aurten, eta hogeit lagunek hartu dute parte. Irabazlea Leioako Jose Reyes izan da, duela bi urte bezalaxe.

## Danbor-hotsak

Zapatu gauean, bestalde, danbor-hotsek hartu zituzten herriko kaleak. Atabal elkarteak antolatuta, helduen danborra-

da egin zuten, Kalegoen plazan hasi eta Maalaraino. Domeka eguerdian Inazio Bereziartua musika eskolako umeek hartu zuten helduen erreleboa, eta euskal dantzen karroza batek lagunduta egin zuten umeen danborrada.

Horrez gain, sokamuturra izan zen goizean, eta artisau erakusketa egin zuten Lekuederren. Etxeko txikiak eta gazteen gozamenerako, erraldoiak eta buruhandiak irten ziren kalera domeka arratsaldean, eta horrekin amaitu ziren jaiak.



Elgoibarko baserrietako animaliak izan ziren azokan. ASIER ORBEA



Zazpiki elkarteak sagardo lehiaketa antolatu zuen. A.O.



Eusko Label etiketadun Lumagorri eta Basatxerri pintxoak banatu zituzten. A.O.



Altolabazterra baserriko sagardoak irabazi du aurtengo lehiaketa. A.O.



Hogeit lagunek hartu dute parte Egurrek antolatutako margo lehiaketan. A.O.



Jose Reyesek irabazi du aire zabaleko margo lehiaketa. A.O.



Sukaldariak, kupelak soinean, dantzan. ASIER ORBEA




Helduen danborradako irudi bat. ASIER ORBEA



Eskopetek tiro egin zuten unea. ASIER ORBEA



Kalegoen plazan hasi zuten danborrada. A.O.



Sokamuturra, plazan. ASKASIBAR



Herritar bat, zezenari aurrez aurre begira. ASKASIBAR



Babes-hesien ostean, zezenari begira. ASKASIBAR



Denetarikoko produktuak artisau azokan. AINHOA ANDONEGI



Sukaldari txikiak, kupelak astintzen. A.A.



Danborren zuzendaria, danborrada gidatzen. A.A.



Euskal dantza izan zen karrozaren gaia. A.A.

## NIRE USTEZ

**Gazte Eguna, zertarako?**

**IKER LAUZIRIKA**  
ZUZENBIDEKO  
DOKTOREGAIA

Duela urte batzuk Donostiako lagun bati esan nion bere auzoko jaien antolaketak *benetako* politika egiteko denbora gehiegi kentzen ziola. Hark galdetu zidan zer zen benetako politika, auzoa antolatu eta eremu aske bat bermatzea ez baldin bazen.

Oraindik jabetu ez denarentzat, anabasa izan da sanbartolomeetako Gazte Egunaren harira. 1987an Gazte Asanbladak hasitako egun autogestionatu honek dimentsio handiegia hartu

omen du eta segurtasun arazoengatik antolatzaileek 2009ko eta 2010eko kuadrillak kanpoan uztea erabaki dute. Egoeraren aurrean, gazte hauek erakutsi dute nahikoa agentzia badutela antolatu eta beren tokia aldarrikatzeko.

Eskerrak hitz kopuru mugatua dudan, nik neuk ez bainuke asmatuko konponbide onik ematen. Norberak atera eta adierazi ditzala bere ondorioak. Aldiz, arazoaren erroan dagoen bazkariaren despolitizazioa seinalatu nahi dut lerrootan. Galdetzen dut zenbateraino balio duen gaurko bazkariak Elgoibarko gaztedia elkartu eta antikapitalismoan, euskaran edota

transfeminismoan hezteko. Bestela, jakin nahi nuke zergatik eta zertarako dedikatzen diegun hainbesteko indarra jai hauei.


Horregatik, gazteok despolitizatuen eta kontserbadoreen gaudela dioten unean, Gazte Eguna berriz ere balio politiko eta sozial batzuen gainean kokatu beharko genukeela deritzot. Bada garaia herritik hausnarketa prozesu kolektibo baten bitartez gure jaiak zertarako nahi ditugun erabakitzeke.

Horrela, agian, Gazte Eguneke 40. urteurrenean Elgoibarko gazteok nola antolatu gaitzkeen filosofatu genezake ogi eta sagardo artean.

## KLIK

**Untzillatxeko zaindaria**

**SAIOA RODRIGUEZ**  
ARGAZKILARIA



Untzillatx gailurreko zaindariaekin topo egin genuen egun hartan. Berezi zegoen eguna, laino-itsaso altuarekin. Aurrean Udalatx punta ikusten da, laino artetik.



## SEMAFOROA

**Autoak, azkarregi**

"Pedro Migel Urruzuno kalean abiadura mugatuta dago ibilgailuentzat. Lurrean idatzita dago, zenbaki handiz, 20 kilometro orduko baino abiadura azkarragoan ibiltzea debekatuta dagoela. Hala ere, autoak ziztu bizian ibiltzen dira askotan. Kontuan izanik kale horretan zebra-biderik ere ez dagoela, gidariei eskatu nahi nieke araua errespetatzeko".

**Olaizaga kiroldegian, itota**

"Aste honetan egoera jasangaitza bizi izan dugu Olaizaga kiroldegiko kirol saio batean, asteartean, hain zuen ere. Igerilekuaren goiko aldeko gelan izan zen, kanporako aireztapenik ez duen gela batean. Kanpoan 18 gradu zeuden arren, gelan 30 gradutik gora zeuden, hezetasun itogarriekin. Ondorioz, hainbat lagunek klasea utzi behar izan zuten. Kirol-espazioek aireztapen eta temperatura seguruak bermatu behar dituzte, osasuna arriskuan jarri gabe. Elgoibarko Kirol Patronatuari aireztapena berehala konpontzeko edo jarduerak leku egokiago batera aldatzeko eskatzen diogu". Kirol Patronatuko zuzendariarekin jarri da harremanetan BARRENA, eta ondorengo erantzuna eman du: "Olaizaga kiroldegiko 1. eta 2. gimnasioetan ez dago aire giroturik. Duela hilabete erabiltzaileengandik jaso genuen eskaera kontuan hartuta, orain dela 15 egun egin genuen aire girotua jartzeko eskaera, eta lan hori Giroitze enpresari eskatu diogu, dagoeneko. 15.000 euroko aurrekontua dauka instalazioak eta esan digutenez, datorren astean edo gehienez pare bat aste barru iritsiko zaizkie aparatuek. Azken aste hauetako beroa jasangaitza izan da, eta sentitzen dugu sortutako eragozpenak".

## Herritarrek erabakiko dute Usetzeko gune berriaren diseinua, bozketa bidez

Ekainaren 15era arteko epea dago botoa emateko

### Ainhoa Andonegi

Hemeretzi proiektu aurkeztu dituzte Usetxe plaza diseinatze-ko lehiaketara, eta epaimahai teknikoak hiru egokienak aukeratu ditu, bideragarritasun teknikoa eta ekonomikoa kontuan hartuta. Horien artean gogokoenari botoa emateko aukera izango dute orain herritarrek, eta boto gehien jasotzen dituen proiektua egingo du ondoren Udalak.

Herriko lau lekutan jarri dituzte proiektuen panelak ikusgai: Kultur Etxean, Usetxe plazan, Toletxegainen eta Aita Agirre Kulturguneko sarreran. Puntu horietan bertan QR kodeak daude online-galdetegira sartzeko. Era berean, Udalaren webgunean ere ([www.elgoibar.eus](http://www.elgoibar.eus)) eman daiteke botoa. Online sistemaz gain, aurrez aurre botoa emateko aukera ere jarri dute, Herritarren Arreta Zerbitzuan (HAZ) eta Kultur Etxean. Elgoibarren erroldatuta dauden 16 urtetik gorako herritarrek parte hartu ahal izango dute bozketan, eta pertsona bakoitzak boto bakarra eman ahalko du. Ekainaren 15era arte egongo da botoa



Proiektuetako bateko irudia. INFOGRAFIA.

emateko aukera. Udalak azaldu duenez, jendaurrean jarri dituzten paneletan ez dute adierazi zeintzuk diren hiru diseinuen egileak, eta irabazlea aukeratutakoan argituko dute arkitektoaren edo diseinua egin duen estudioaren izena.

### Eraikina bota

Elgoibarko Udalak Pedro Murgutzako eraikina osorik botatzea erabaki zuen, ingurunea eraberritzeko. Hala ere, eskolatan biltzen diren elkarten-tzako lokalak egokituko dituz-

te plazaren azpian. Gaur egun, EME elkartekoek, Taupada taldeak, filatelia elkartekoek eta Elgojaitza elkartekoek erabiltzen dute eraikina. Udalak aurreratu duenez, urte bukaerarako edo hurrengoaren hasierarako hasiko dituzte eraikina eraisteko lanak, eta obra berriaren diseinu definitiboa egin ondoren ekingo diote obra berriari. 2,4 milioiko aurrekontua izango du Usetxe-ko parkea eraberritzeko proiektuak, eta Eusko Jaurlaritzak 1,8 milioi jarriko ditu.

## Literatura eta idazle berrien lana sustatuko ditu Gotzon Garate bekak

Bekaren bosgarren aldia izango da aurtengoa

### A.A.

Elgoibarko Udalak Gotzon Garate Bekaren V. deialdia egin du, Danobat kooperatiba elkartearen eta Elkar argitaletxearen laguntzarekin, eta aurtun literatura sorkuntza eta idazle berrien lana sustatzea izango du helburu. Bekaren bosgarren deialdira eleberriak idazteko proiektuak aurkeztu ahal izango dira, jatorrizkoak eta euskaraz sortuak, zatika edo osorik inon argitaratu gabeak, sarituak izan ez direnak eta beste inondik moldatu gabeak. Deialdian nahi duen orok parte hartu ahal izango du, eta eskatzaile bakoitzak nahi adina proiektu aurkeztu ahal izango ditu. Hala ere, egile berrientzat izango da beka; beraz, eskatzaileak, gehienez, liburu bat eduki dezake aurrez argitaratuta.

### 8.000 euroko saria

Bekaren xede den eleberria egiteko epea, gehienez ere, 12 hilabetekoa izango da, eta zenbatekoa, berriz, 8.000 eurokoa. Lana Udalaren ardura-pean egingo da, Jasone Osoro



Bekaren aurkezpena. A.O.

idazlearen mentoretza literarioarekin.

Oinarri guztiak eskura daude [www.elgoibar.eus](http://www.elgoibar.eus) webgunean, eta eskabideak eta gainerako agiriak Elgoibarko Udalaren Herritarrentzako Arreta Bulegoan –Santa Ana 2– edo modu telematikoa aurkeztu ahal izango dira, webgunean bertan, *Gotzon Garate bekaren V. deialdia* erreferentzia jarrita. Hain zuzen ere, bekarako proposamenak aurkezteko epea 2026ko uztailaren 30ean bukatuko da.

## Hamahiru webgune berri 'Elgoibartik mundura'-n

Arlo digitalean euskararen erabilera sustatzea du helburu egitasmoak

### A.A.

*Elgoibartik mundura* egitasmoaren hirugarren aldia gauzatu dute Elgoibarko Udalak, Puntueusek, Elgoibarko Izarrak eta herriko ikastetxeek, elkarlanean, eta martitzenean egin zieten aitortza egitasmoan parte hartu duten ikasleei. Helburua da Elgoibarko eragileei webguneak sortzen laguntzea. STEAM bokazioak sustatu nahi ditu, eta baita euskararen erabilera ere arlo digitalean, .eus domeinuaren

ikusgarritasuna areagotzeko. Ikastola, Meka eta Elgoibar BHI ikastetxeek hartu dute parte, eta hamahiru webgune sortu dituzte: *Txillarre eko-denda*, *Surya belar-denda*, *Iriondo kirolak*, *Pitxintxu*, *Denetik bazar txinatarra*, *Ibarrenea*, *Elgoibarko Saskibaloitza taldea*, *Elgoibarko Lagun taldea*, *Elgoibar Igeriketa*, *Soraluzeko musika eskola*, *The Red Tree hizkuntza eskola*, *Yoga Esentzia estudioa* eta *Aterpe taberna*.



Partaideak eta eragileak, Aita Agirren. AINHOA ANDONEGI

## Erregional Mailako taldeak udaletxeko balkoian ospatu du Kopa irabazi izana



CD ELGOIBAR



MIKEL ASKASIBAR

Gipuzkoako Erregional Mailako Kopa irabazi du CD Elgoibarko bigarren taldeak. Irungo San Marcial taldea hartu zuen mendean Orion jokatu zen finalean, 2-0. Jokalariek eta zaleek partida amaitu eta berehala hasi zituzten ospakizunak, eta herrira iritsi zirenean izan zuen segida festak, udaletxeko ateak zabaldu baitziz-

kieten udal agintariak, harrera egiteko. Udaletxetik irten zirenean ere festa giroan jarraitzeko aukera paregabea izan zuten, herria Trinitate jaietan murgilduta baitzegoen. Igoera faserako sailkatzerik lortu ez zuten lau multzotako 30 taldek jokatu dute Kopa txapelketa.

## Pilota plazara atera du Lagunak Pilota Eskolak

Lagunak Pilota Eskolak denboraldia amaitzeko antolatzen du Pilota Eguna

### Asier Orbea PILOTA EGUNA

Pilotarien harrobia jokoa ikusteko aukera izan zen barikuan Kalegoen plazan, eta pilotariak eurek jendaurrean aritzeko aukera izan zuten. Buruz Buruko Pilota Txapelketaren finala jokatu berri duten Dariok eta Artolak ere halatsu hasiko zuten euren ibilbidea. Hain zuzen, 50 umek parte hartu zuten Pilota Egunean, eta partidak jokatu ostean guztiek jaso zuten oroigarria. Horrez gainera,

Baltasar elkartekoei prestatutako txorizo egosia banatu zuten plazan. Lagunak Pilota Eskolak babesle dituen Udalarri, Haizelur enpresari eta Baltasar elkarteari aitortza egin zien sari-banaketa ekitaldian. Gipuzkoako Pilota Federazioak 100 urte bete ditu eta liburu bat kaleratu du, eta Elgoibarko pilotariak eta Lagunak eskolak ere badute lekua liburuko orrialdeetan. Babesleei liburuaren ale bana oparitu zieten.



Taldea-argazkia aterata bukatu zuten Pilota Eguna. LAGUNAK PE

**LAGUNAK**  
colchoneria textil bogor

**Ezagutu udaberri-udara denboraldiko ehunak!**

Ohazalak eta edredoiak  
Nordikoentzako zorroak  
Izarak  
Toallak  
Tapizatuak

Udako mantetan aukera zabalak!

San Roke kalea, 20 - Elgoibar  
943 74 44 57 - 685 75 69 78 - [www.textillagunak.com](http://www.textillagunak.com)

**EXPRESS ESKAINTZAK!**

**NEO QLED SAMSUNG  
TQ65QN74FATXXC TELEBISTA**

**679 €** **A T G E**

- 4K UHD
- Smart TV
- HDR 10+
- Samsung bertsioa IA
- Teknologia Neo Qled

**MILARBIRE**

Ubitarte, 11 - 943 741 487  
[bire@milarbire.es](mailto:bire@milarbire.es)  
Dendako prezioak. Produktuak agortu arte.

**Barrena**  
DEBARRRENEKO KOMUNIKAZIO TALDEA

943 743 704  
688 769 657

Jarri ezazu zure publizitatea **BARRENA** astekarian edo [www.barrena.eus](http://www.barrena.eus) webgunean

# Alcorta, kopetan maisu

Sanloko lau taldek jokatu zituzten asteburuan Gipuzkoako Kopako finalak

**Asier Orbea Ostolaza** ELGOIBAR  
Jokoan zituzten lau tituluetatik bakararra eskuratu zuten Sanloko kirol-taldeko taldeek; hain zuzen, senior mailako gizezkoen Alcorta Forging Group taldeak. Alcortak Urola taldea izan zuen aurkari Olaizaga kiroldegian jokatu zen Gipuzkoako Kopako finalean. Partida bizia eta parekatua jokatu zuten, eta etxeoak gailendu ziren, 34-29. Denboraldi honetan eskuratzen duten bigarren Kopa garaikurra da honako hau, aurrez Euskal Kopa irabazi baitzuten. Hala, aho-zapore gozoarekin agurtu dute denboraldia.

**Agurrak eta omenaldiak**  
Agurrentzako ere baliatu zuten azken partida, taldea eta eskubaloia lagako duten Javier Oregi Etxaberi eta

Iñigo Muguerza Osorori aitortza egin baitzieten. Oregik, gainera, kide den LaRoita lagun-taldearen aitortza ere jaso zuen. "Ia bi hamarkada eman ditu Sanlon, klubeko jokalaria eta erreferente garrantzitsu bihurtuta. Haren ibilbidean zehar taldearen alde egindako lana, konpromisoa eta kirolarekiko maitasuna nabarmenak izan dira, eta etorkizuneko belaundientzat eredu izan da, bai kantxan, bai kanpoan", adierazi dute LaRoitakoek.

Eta gaineratu dute Oregiren ibilbidea ez dela kirol arrakastara soilik mugatzen; komunitate baten parte bihurtutako historia dela azpimarratu dute. "Handia da laga duen ondarea, eta, horrenbestez, haren izena betiko geratuko da klubaren memoria kolektiboan".

**Neskak, esku-hutsik**  
Sanlo kirol taldeko Tecnifuelle, Amaro Eraikuntzak eta Deuko Izarra taldeek ere jokatu zituzten Gipuzkoako Kopako finalak aurreko asteburuan, nor bere mailan, baina ezin izan zuten irabazi.

Infantil mailako nesken Tecnifuelle taldea geratu zen Kopa irabaztetik gertuen, 17-16 galdu baitzuen, domekan, Pulpo taldearen aurka finala, Zumaian.

Gaszte mailako nesken Deuko Izarra taldeak etxean jokatu zuen finala, zapatuan, baina ezin izan zuten irabazi; oñatiarrek nagusitasunez irabazi zieten, 14-24.

Azkenik, kadete mailako nesken Amaro Eraikuntzak taldeak 31-29 galdu zuen Leizaran taldearen aurka, Andoainean.



Alcorta taldekoak Gipuzkoako Koparekin. ASIER ORBEA



Javier Oregi eta Iñigo Muguerza omendu zituzten. ASIER ORBEA

## Julen Urruzola elgoibartarra Asobal Ligara igo da, bigarren urtez jarraian

**A.O. SAGUNTO**  
Igoerak lortzen espezialista bihurtu da Julen Urruzola (Elgoibar, 2002): iaz, EON Horneo Alicante taldearekin igo zen Asobal Ligara, Espainiako maila nagusira; eta aurten, Valentziako Fertiberia Puerto Sagunto taldearekin lortu du igoera. Elgoibartarra Irungo CD Bidasoa eskubaloit taldeak lagata joan

zen EON Horneo Alicante taldera, 2023ko udan. Lehen denboraldiaren ostean, bi denboralditarako kontratua sinatu zuen. Iaz, Zilarrezko Ligan lehen postuan amaitu zuten denboraldia, eta Asobal Ligara igo ziren, zuzenean. Horrenbestez, Urruzola Asobal Ligan aritu da denboraldi honetan. Martxoaren amaieran, baina, kontratua

etetea adostu zuten taldeak eta jokalaria. Urruzolak bi denboraldi eta erdian 76 partida jokatu zituen Alacanteko taldean; horietatik hamasei, Asobal Ligan.

**Alacantetik Valentziara**  
Urruzolak Alacant laga eta Valentzian topatu zuen eskubaloian gorengo mailan jokatzeko lekua, apirilean Fertiberia Puerto de Sagunto taldeak fitxatu baitzuen. Duela bi denboraldi Asobal Ligatik jaitsi ostean, Zilarrezko Ohorezko Mailan aritu da Saguntoko taldea, igoera lor-




Julen Urruzola. F. PUERTO SAGUNTO

tzeko lehiari sartuta beti, eta, asmo horrekin, taldea indartu nahi zuten, Urruzola denboraldiaren zati erabakigarriak fitxatuta. Eta ondo baino hobeto irten zaie: mailaz zuzenean igoera-kanporaketan gailenduta itzuli dira eskubaloian Espainian den mailarik gorenera, Asobal Ligara. Edonola ere, Saguntoko taldeak datorren denboraldian taldean jarraituko ez duten jokalariei berri eman du, eta haietako bat da Urruzola.

## Hiru domina lortu ditu Iosu Rodriguez kulturistak Valentzian eta Italian

**A.O. KULTURISMOA**  
Kulturismo naturalean diharduen Iosu Rodriguez elgoibartarra bi txapelketatan lehiatu da azken bi asteburuetan, Valentzian eta Riminin; eta bietan eskuratu ditu emaitza onak. Lehenik, AECN Kopan eta nazioarteko Physique Mania kopan lehiatu zen, Lloria hirian. Txartel profesionalarekin lehiatzen den

Fitness Model PRO kategorian urrezko domina eskuratu zuen, eta brontzezko domina eskuratu zuen estreinakoz aritu zen Mens Physique kategorian. Aspetete geroago, Italian lehiatu zen, nazioarteko txapelketa batean, eta txapeldunorde geratu zen. Balioa eman dio italiarren aurka beren etxean lehiatu eta bigarren postua lortu izanari.



Valentziako txapelketan. LAGATAKOA



Iosu Rodriguez, erdian, gainerako lehiakideekin, Valentzian. Lagatakoea

# 150 bat lagun eta giro ezin hobea Mendi Egunean

Bi talde osatu ziren mendirako: 23 kilometroko ibilbidea osatu zuten 21 lagunek, eta gainerakoek, ibilbide motza, 11 kilometrokoa

**Ainara Argoitia** MENDARO

Estreinakoaren bidetik, bigarren Mendi Eguna ere jai egun handia izan da Mendaron. Zapatuan ospatu zuten, Arno guraso elkarteak, Lizarpe Mendi Klubak eta Udalak antolatuta, eta 150 bat lagun elkartu zituen mendirako.

Bi ibilbide zituzten proposatuak, 23 kilometrokoa bata eta 11 kilometrokoa bestea, biak ere Kilimon Trail lasterketakoak, eta bietara batu ziren mendizaleak. Goizeko zazpietan abiatu zen lehenengo taldea, Herriko Enparantzatik. 21 lagun izan ziren guztira, zazpi emakume eta hamalau gizon, eta arin egin zituzten lehenengo kilometroak, bigarren taldekoak Keixetan gora zirenerako Gaintxiara arrimatuak zirelako haiek, erdia baino gehiago eginda. Bigarren taldekoak, ibilbide motza egitera batu zirenak, 09:30 pasatxo irten ziren plazatik, antolatzaileen argibideak entzun eta tal-

de-argazkia egin ostean. Goizean goizeko deialdian baino talde mardulagoa osatu zen bigarrenean, ume eta heldu, 125 bat lagun bai guztira. Taldean abiatu ziren guztiak plazatik, baina Keixetan gora hasi bezain laster zatitu zen taldea. Nork bere pausoan egin zuen handik aurrerakoa, suge koloretsu bat osatuz Keixetako sigi-sagako bidezidorrean gora. Gehienak Lizarpen elkartu ziren gero, anoa-postuan. Jan-edana prest zuten ordurako antolatzaileek han, eta eskertu egin zuten mendizaleek.

Sargori egin zien gorakoan oso, lainopeko bero likatsu hori, baina laino itsua sartu zitzairen gora iritsitakoan, freskatu zuen zertxobait, eta ez zegoen han izerdituta luzarozan egoterik. Mokadu bat egin, eta hartu zuten Garaluzerako bidea, talde txoetan. 400 bat metro egin eta orkatza irten zitzairen bidera mendizaleetako batzuei, eta balio izan zien txikienei nekea ahaztu eta berriro ikusiko zuten ilusioarekin aurrera egiteko. Marka zuri-horiei jarraiki osatu zuten ibilbidea guztiek. Helmugan, Mendaroko Txirrindulari Elkartearen arkua zabaldua zuten antolatzaileek mendizaleei ongietorria egiteko, eta baliatu

zuten askok argazkia egiteko ere. Helmugan mokadutxo bat egin, etxean freskatu bat hartu eta guztiak itzuli ziren berriro plazara, bazkaritara. Frontoian egin zuten herri-bazkaria, eta 130 lagun inguru elkartu ziren. Bazkalostean, Arno guraso elkarteak Mendi Taldekoek aterako kamisetak oparitu zituzten urtean zehar antolatutako mendi-irteeran parte hartu duten haurrei, eta Lizarpe Mendi Klubak eta Kilimon Trail lasterketakoek emandako materiala zozkatu zuten bazkaltiarren artean, bai eta Egurrola baserriko gazta laurdenak ere.

Sariak eta opariak banatu ondoren, berriz, buruhandi bi atera zituzten Arnokoeak, eta nekatuenak ziruditenak ere azkartu zituzten hankak haiengandik ihesi, santanetan nola. Ondoren, frontoiko mahai, aulki eta gainerako gauza guztiak batu ondoren, Miren Gisasola musika jartzaile eibartarraren atzetik joan ziren denak Mendarozabalerantz, kalejiran.



Mendi Eguneko argazkiak ikusteko, eskaneatu QR kodea telefonoarekin.



Mendizale talde bat Lizarpe gainera iristen. AINARA ARGOITIA



Ibilbide luzeko bi mendizale, Lizarpen, anoa-postua atzean lagata. A. ARGOITIA



Ibilbide motzerako elkartu zirenak, goizean, plazan. AINARA ARGOITIA



Mendizale talde bat Garaluzen gora, laino itsuarekin. A. ARGOITIA

## Daniel Juarez saxofoi jotzaileak kontzertua emango du ekainaren 12an, San Agustinen

Sarrerak dagoeneko salgai daude, Uztargi tabernan, 15 euroan

**Ainara Argoitia** MENDARO

Roberto Nieva saxofoi jotzaile entzutetsua izan zen Mendaron orain hurrengo, maiatzaren 22an, eta ekainaren 12rako beste jazz kontzertu bat iragarri du Mesa 7 kultur elkarteak: Daniel Juarez saxofoi jotzailearena. San Agustin aretoan emango du kontzertua, 21:30ean hasita, eta sarrerak salgai daude dagoeneko, Uztargi tabernan, 15 euroan. Hala ere, aretoko sarreran bertan ere eskuratu ahal izango dira egunean bertan.

Saxofoi jotzailea, konpositorea eta irakaslea da Juarez, eta musikari buruz duen ikuspegi berezitzaileak ezagun egin du Europoan. 2014an kaleratu zuen lehen diskoa, *Caminos*, eta zortzigarren lana aurkeztera dator: *Reflexividad*. Edertasuna, desioa, identitatea eta perspektiba lan-

du ditu lan horretan Juarezek. Iazko otsailaren 21ean kaleratu zuen, eta Europako jazz garaikideko album garrantzitsuenetako baten gisa aurkeztu zuen kritikak. Musikaren bidez giza esperientzia unibertsalei buruz hausnartzeko gonbidapena da *Reflexividad* diskoa, nazioarteko eszenan erreferenteak diren hiru musikariren laguntzarekin aurkeztuko duena: Dario Guilbert –kontrabaxua–, Naima Acuña –bateria– eta Mendaroko seme Iñigo Ruiz de Gordejuela –pianoa–. Saxo tenorrarekin erakutsitako trebetasunagatik da bereziki ezaguna Juarez, baina jazz, pop, hip-hop, elektronika eta musika garaikideko estilo askorekin nahasteko duen abileziak ere aparteko egiten du. Haren ibilbidean musikari handiekin jo izan du, hala nola



Daniel Juarez. SAREA

Adam Nussbaum, Dave Liebman, Rhonda Ross, Michael Moore, Rodney Kendrick, Kevin Hays...

## Gazta eta artisau azoka antolatu du Udalak ekainaren 7rako

Gazta eta artisau azoka egingo dute Herriko Enparantzan. Debarreneko Goienetxe, Mauxitxa eta Egotza gaztandegietako gaztak probatzeko aukera izango da. Bi euroan hiru gazta pintxo dastatzeko aukera egongo da, eta, bi euro gehiago ordainduta, herrian egindako sagardoa ere dastatu ahal izango da.



AINARA ARGOTIA

## Plaza auzoari buruzko bideoaren emanaldia, gaur, udaletxean

AP-8 autobidea eraiki aurreko Plazako kontuak bildu ditu Ainara Argoitia kazetariak bideoan, eta gaur proiektatuko dute, udaletxeko udalbatza-aretoan, 18:30ean. Silberio Txurruka eta Juanita Ugarteburu senar-emazteen, Jose Antonio eta Jesus Mari Mendikute anaien, Juanita Iriondoren eta Miguel Mendikutereren lekukotzak batu ditu.

## Zabalik da Adinekoen Eguneko bazkarirako izena emateko epea

Uztailaren 19a izango da santanetako Adinekoen Eguna, eta Udalak zabaldu du epea egun horretan egin ohi duten edadetuen bazkarirako izena emateko. Ekainaren 14a da izena emateko azken eguna. Baldintza bakarra bete behar da bazkaritarako: 70 urte beteak izatea, edo, bestela, bikotekideak adin hori beteak izatea. Telefonoa: 943 03 32 82.

## Herri giro ederraz gozatu ahal izan dute mendarotarrek Trinitate jaietan

Herri-kirolak, bertso-saioa, erromeria, txistularien diana eta jan-edana izan dira Mendarozabalgo jaietako egitarauko osagai nagusiak

**A.A.**

Eguraldia lagun, erruz ibili da jendea aurten Trinitate jaietan. Bizipoza txarangakoek hasi zituzten jaiak, ostiralean, baina igandean eta astelehenean pilatu ziren egitarauko ekintza nagusiak. Igandean, txistularien dianak esnatu zuen herria, eta inguratu zen jendea Trinitate basiliza ingurura goiz erdirako. Meza izan zuten lehenengo, eta meza-osteko luzea ondoren. Igandeko jaiak urteroko osagaiak izan zituen: musika eta herri-kirol erakustaldia. Goizder Abendibar harri-jasotzaile mallabiarrak hasi zuen erakustaldia, eta ondoren, nor baino nor gehiago aritu ziren aizkoran Arkaitz Etxebeste igeldoarra eta Ugaitz Mugertza mutrikuarra. Berria zen bata Mendaron, eta etxekoa bestea, Ugaitz Mugertza, haika alditan etorria delako aurrez, bai auzoetako jaietan



Ugaitz Mugertza aizkolaria, lehen planoan, domekan, ahalegin betean. A. ARGOTIA

zein santanetan. Hain justu ere, hura izan zen aizkoran egin beharreko lana bukatzen lehenengoa, baina denentzat izan zituzten txaloak mendarorrek.

Elizpean taberna jarri zuten jai batzordekoek, ohi legez, eta jan-edana ere ziurtatua egon zen. Txorizo-ogitartekoak eta Trinitaten ohikoak diren

legatz-ogitartekoak zerbitzatu zituzten, bai eta txakolina ere, nahi beste. Eta gauza bera astelehenean, Trinitate Txiki Egunez. Meza, herriko eskola-umeen bertso-saioa eta trikiti-doinuak izan zituzten astelehenean, eta, domekan beste izan ezta ere, jende ugari batu zen Trinitatera, astelehena izanagatik ere.



Trinitateko jai batzordekoek gogotik egin zuten lan domekan txosnan. AINARA ARGOTIA



Mendaroko ikastetxeko ikasle talde bat, astelehenean, kantuan. AINARA ARGOTIA



Txindurriko kideak, iazko Txindurri Egunean dantzatu zuten Kukai konpainiako lagunekin batera. TXINDURRI

## Maskaradak berrasmatuko dituzte Txindurrikoek, 'Antifazak' ikuskizunarekin

Txindurri Egunean dantzaz, antzerkiz eta musikaz beteko du plaza, domekara arte

### Ander Gomez

Ekainaren 5ean, 6an eta 7an, bere eguna ospatuko du Txindurri Dantza Taldeak, eta, antolatzaileek agindu dutenez, jai-proposamen "desberdin bezain dibertigarria" eskainiko dute.

Gaur, barikua, ekitaldi bakarra egongo da: 20:00etan hasiko den elektrotzaranga. Iaz izan zuten arrakastaren ondoren, aurten ere Patxangoi elgoibartarrek berotuko dute jaiak.

### Zuberoan Maskaradak, Ermuan 'Antifazak'

Biharko, zapatua, maskaradetan oinarritutako eguna antolatuko dute Txindurrikoek. "Asko gustatzen zaigun tradizioa da eta sarritan joan gara Zuberoara ikustera", diote. "Orain, Ermura ekartzea erabaki dugu". Hori bai, azpimarratu dute ez direla maskarada arruntak izango: "Buelta bat eman nahi izan diogu, eta guk ulertzen ditugun bezala antzeztu". Maskaradak bere horretan ez egitearen arrazoiak artean nabarmendu dute, alde batetik, baliabide falta: "Beharko genituzke entsegu gehiago, baliabide gehiago, urte gehiago... pausoak prestatzen denbora pila daramagun arren"; eta, bestetik, ideia berriak gauzatzeko duten pasioa: "Saltsero hutsak gara eta asko gustatzen zaigu horrelako ekitaldi bereziak antolatzea".

Hala, goizeko barrikadekin hasiko dute eguna, 12:30ean. Zuberoan auzoz auzo joaten dira,

eta, dantza egin ostean, mokatxoa eta edariak eskaintzen dizkiete baserritarrek. Txindurrikoek, ordea, Ermuko kaleetan egingo dute ibilbidea, eta, herriko kolektiboen lagunzarekin, bidean bi geldialdi egingo dituzte: batean Gazte Asanbladako kideak egongo dira, eta Euskal Birusa Elkarteak bestean.

Arratsaldean, ofizioak aurkezteko ikuskizuna egingo dute, baina zehaztu dute hori ere "Txindurriren erara" izango dela. "Norbaitek ikuskizun tradizionala ikusi nahi badu, hau ez da harentzako; horregatik deitu diogu *Antifazak*". Hala ere, herritar guztiak animatu dituzte "lan handia eginaz" prestatu duten ekitaldia ikustera, 19:00etan, plazan: "Antzerki eta dantza ikuskizuna izango da, kritika sozial apur batekin, tradizioa eta modernitatea uztar-

tuko dituen... Zerbait desberdina ikusi nahi duenarentzat dibertigarria benetan".

Ondoren, txosna zabalduko dute plazan eta musika emanaldiak hasiko dira. 20:00etan, Begibide erromeria-taldea igoko da taula gainera, eta, 23:00etan hasita, DJ Galtzagorriko lagunak girotuko dute gaua, 02:00ak arte.

### Klasikoak azken egunean

Domekako programak aurreko urteetako ekitaldi berberak jasoko ditu. 11:00etan, Txindurriko umeak kalejiran aterako dira, eta, ostean, alardea egingo dute plazan. 14:00etan, txartela erosi duten 140 herritarrek paella-janaz gozatuko dute. Bukatzeko, azken hiru urteetan Txindurri Egunean jaiaren bukaeran izan den Kittu taldea igoko da plazako eszenatokira, arratsaldeko bostetan.



Plaza jendez gainezka utzi zuen Patxangoi elektrotzarangak iaz. TXINDURRI

## Miguel Ledesma triatletak botako du aurtego txupina

Txupineroa aukeratzeko, kultur eta kirol arloko izen ezagunak txandakatu ohi dituzte. Azken bi urteetan Mikel Losada eta Alain Kortazar aktoreek eman diete hasiera santixaei, eta aurten, berriz, Miguel Ledesma Blanco triatletak irakurriko du pregoia eta botako du txupina.

Jai Batzordeak 2025ean lortutako emaitzak nabarmendu ditu erabakia justifikatzeko: 25 eta 29 urte artekoen kategorian, distantzia luzeko munduko txapeldun eta distantzia ertaineko Europako txapeldun izan zen. Estatu mailako distantzia luzeko txapelketan, berriz, hamalagarren postuan sailkatu zen.



Ledesma, Zarautzen. NAIKE EREÑOZAGA

## II. Gazte Areto Futbol Txapelketa jokatu da ekainean

Gazteria Sailak areto futbol txapelketa antolatu du, bigarren. Ekainaren 22tik 25era jokatu da, modalitate mistoan, eta 2008 eta 2013 artean jaiotako gazteen-tzat da. Partidak Betiondon izango dira.

Ekimenaren helburua gazteen artean aisialdi osasungarria, laguntasuna eta jarduera fisikoa sustatzea dela azaldu dute. Ho-

rez gain, txapelketak izaera ludikoa izango duela azpimarratu dute: "Lehiakortasuna baino gehiago, dibertsioa eta joko garbia lehenetsiko dira".

Gehienez, hamasei taldek hartu ahal izango dute parte, eta izena emateko epea hilaren 12an bukatuko da. Interesa dutenek Udal Liburutegian eman beharko dute izena. Talde irabazleak afari bat izango du sari Ermuko jatetxe batean, eta jokalariei bakoitzak sarrera bana jasoko du San Mames museoa bisitatzeko.

## Saski Ermuaren zozketa solidarioak baditu irabazleak

Ermua Saskibaloi Eskolak esklerosi anizkoitzaren ikerketara bideratzeko 4.200 euro bildu ditu. Sinatutako kamiseten zozketa gaixotasunaren nazioarteko egunean egin zuten, eta hauek dira zenbaki irabazleak: 2.088 –Kosner Baskonia–, 2.467 –Surne Bilbao–, 7.309 –Inveready Gipuzkoa– eta 9.963 –hiru taldeek sinatutako kamiseta berezia–.



SASKI ERMUA



MUSIKA ESKOLA  
943 17 12 98

Abesbatza  
Banda  
Biolina  
Biolontxeloa  
Flauta

Gitarra  
Gitarra elektrikoa  
Gitarra baxua  
Musika Hizkuntza  
Klarinetak  
Panderoa

Perkusioa  
Pianoa  
Saxofoia  
Trikitixa  
Tronboia  
Tronpeta

albokamusikaeskola@hotmail.com



MUP igoeran parte hartu zuten lagun guztiak, Urko mendiko tontorrean. EMILIO JOSE CARRAL



Lauko Errotabarriko neskak, koparekin, ospakizuna hasi aurretik. ANDER GOMEZ

## Javi Alberdi omendu dute, inklusioa sustatuz eta minbiziaren kontrako borrokan lagunduz

Memorial solidarioaren hirugarren aldia, Urkorako igoerekin 1.470 euro bildu dira

### Ander Gomez

2019an mendiko istripu batean zendutako Javi Alberdi Altuna oroitu zuten zapatuan Artarraiko kideek, presidente eta lagun zuten ermuarraren omenez antolatzen duten memorial solidarioan. Lehen aldia bildutako dirua SLC6A1 Spain elkarteari eman zioten, 6 urteko Hugo M.D. ermuarraren gaixotasun arraroa ikertzeko; bigarreanean, Durangaldeko Rio de Oro elkarteari, saharar herriari laguntzeko; eta aurten, Bizkaiko Minbiziaren Kontrako Elkarteari emango diote.

Goizean goiz jarri zuten txartel solidarioen postua, plazan, eta, urtero bezala, Hiru Txikiak Trail taldeko kideek egin zuten lehen irteera, 07:00etan. Handik aurrera, eta hamabi orduz, ehunka mendizalek hartu zuten Urkorako bidea, 2 euroan erosita-

ko txartela eskuan, tontorreko postontzian lagatzeko asmoz.

Ekitaldi nagusia, ordea, mugikortasun urriko pertsonen egoeraz sentsibilizatzeko eta gizartearen duten lekua aldarrikatzeko MUP martxa izan zen, Mendi Solidarioak, Zure Irri-farra Nire Indarra eta Ezina Ekinez Egina elkarteekin batera antolatutakoa. Bidean, Javi Alberdiren omenez landatutako zuhaitzean geldialdia egin zuten, Artarraiko eta Bizkaiko Minbiziaren Aurka-ko Elkarteak hitz batzuk egin zituzten, eta Irune Basagoitik bertso batzuk kantatu zituen. Aulkietatik tiraka zeuden laguntzaileei eta bidean animatzen jardun zuten guztiei esker, tontorrera ailegatzea lortu zuten mugikortasun urriko pertsonen; gehienek, aurrenekoak.

### Partaidetza txikiagoa, baina inoiz baino igoaldi gehien

2024an, 467 lagunek hartu zuten parte, eta 608 igoaldi egin ziren. 2025ean, Urkok dituen metro adina igoera -691- egitea proposatu zuten antolatzaileek, eta erronka bete zuten 476 parte-hartzaileek. Aurten, jende gutxien batu den aldia izan arren, inoiz baino igoera gehiago lortu dituztela ospatu dute: 735 igoaldi.

Gizonezkoen saria Asier Lavadok jaso zuen, iazko bederatziko igoaldiko errekorra berdintzearen. Emakumezkoetan, marka hautsi eta zazpi igoaldi lortu dituzte hiru parte-hartzailek batera.

Txartel solidarioekin lortutako dirua soilik zenbatu dute: 1.470 euro. Kopuru horri zero ilarako itsulapikoetako dirua eta elkarteek dohaintzan emango dutena gehituko zaio.

## Jokalari, teknikari, familia eta lagun artean ospatu dute seniorren igoera

Ostiral arratsaldean, herri osoa batu zen Errotabarrientzat mugarri den Urrezko Ohorezko Mailarako igoera ospatzeko

### Nahia Ruiz Albizuri

Ospakizuna Miguel Angel Blanco kiroldegian hasi zuten. Trenera igo ziren jokalaria, eta, atzetik klubeko partaide, familia eta lagunak zituztela, txalo artean zeharkatu zuten herria: Zearkaletik autobide zaharreko sarbidera, Abeletxetik Okinzurira, eta Zubiaurretik Valdespina Markesa kalera, udaletxeko atarira heldu arte.

Alkateak klubeko partaideak agurtu eta batzar aretora gonbidatu zituen. Bertan ilusioa eta poza helarazi zizkien klubeko kideei, eta herriak emakumezko talde indartsu bat edukitzearen garrantzia azpimarratu. Ostean, balkoira irten ziren, bertan zegoen publikoari hitz batzuk zuzentzeko. Alkateak zein klubak igoerak dakarren harrotasuna nabarmendu zuten, baita egin-dako lan eta sakrifizioa ere.

Jokalariek Urrezko Ohorezko Mailara igotzea ametsa izan dela azaldu zuten. Horrez gain, Bizkaiko Kopako finalaren bezpera izanik, Jon Unanuek sortutako bertso batzuk kantatu zituzten: *Gaur be ezingo dogu parrandarik bota, Bizkaiko Kopa finala gainian dago ta, egin beharko dogu guztiok borroka, Gora Ermuko neskak ta gora Errota!*

Hitz-hartzeak bukatu ondoren, alkateak oroigarri bana eman zien taldekideei, eta, ostean, Martxoaren 8a plazako ospakizunera joan ziren. Plazan zaleen gunea, musika eta txosna egon ziren, 23:00ak arte.

### Bizkaiko txapeldun

Larunbatean, Grupo Kursaal Basauriren kontrako finala jokatu zuten, Berangon, eta 29-23 irabazita, Bizkaiko Kopa ere ekarri zuten etxera.



MUP martxaren harrera, plazan. E.J.C.



Antolatzaileak, igoera gehien egin zituztenekin, sari-banaketaren ostean. E.J.C.



Gazteek TOP5 postua ospatu zuten. A.G.



Tren propioan zeharkatu zuten herria. A.G.

## Goitondoko industrialdeko hondakin-urak Elgoibarko Apraizko araztegiarekin lotu dira

Ermua eta Mallabia arteko saneamendu-sarearen lanak bukatu dituzte

### Asier Orbea Ostolaza

Uraren Euskal Agentziak adizera eman duenez, aurrerapauso "erabakigarria" eman dute Ermuko eta Mallabiko udalerrietako saneamenduan, Goitondo-Ermua kolektorea zerbitzuan jarrita.

Horri esker, hondakin-urak saneamendu-sistema orokorra eta Elgoibarren dagoen Apraizko araztegiara bideratu ahal izango dituzte. Alegia, Mallabiko Goitondoko industrialdetik eta Arandoño auzotik doazen hondakin-urak Ermuko sarean bildu eta garraiatuko dituzte, Elgoibarko Apraiz araztegiaren tratatzeko. "Mugarri horrek nabarmen murrizten du Ego ibaiaren gaineko presio kutsatzailea: historikoki hiri- eta industria-isurketek eragindako ibaia, hain zuzen ere", adierazi dute agentziako arduradunek.



Saneamendu-sareko obrak, otsailan. URA

### Eskualde-sistema bat

Agentziakoek zehaztu dutenez, Goitondo-Ermua kolektorea "egiturazko pieza bat" da eskualdeko saneamendu-sisteman. Eroanbide nagusi berria 1.800 metro inguru luze da eta



Apraiz araztegia. AITOR ZABALA

Errekazabaleta ibaiaren paraleloan doa; Mallabiko industria-eremua Ermuko hiri-sarearekin lotzen du.

Azpiegiturak Goitondo eremu-ko lau poligonoei ematen die zerbitzua. Industrialde horiek

17,23 hektarea inguruko azalera dute, eta inguruko jarduera ekonomikoaren gune nagusietako bat dira. Sistema gai da segundoko 15,5 litroko batez besteko emaria artatzeko; hau da, 4.500 herritarrek sortzen dituzten isurketen kopuru antzekoa, nahiz eta kutsadura-karga nabarmen handiagoa izan, isurketen izaera industrial delako eta. Proiektuak, gainera, etorkizuneko konexioak egiteko aukera aurrerikusten du, hala nola Berano auzoa (Mallabia) eta hirigintza-garapenak Okinzur (Ermua), eta horrek, arduradunen esanetan, egitasmoaren "izaera estrategikoa" indartzen du epe ertain eta luzera.

### Obra konplexua

Guztira bi urte behar izan dituzte Goitondoko lanak egiteko, eta 3,49 milioi euroko inbertsioa egin dute -BEZa barne-. Nabarmendu dutenez, azpiegitura hori egiteko ahalegin tekniko handia egin behar izan dute, inguruko baldintzak eta dauden azpiegiturekin lanak bateragarri egiteko. Haren ibilbidea korridore oso mugatuan zehar luzatu da, ibaiaren hurbiltasunak,

BI-2301 foru errepideak eta Ermua eta Mallabia arteko oinezkoen-tzako ibilbideak baldintzatuta. Horrez gain, sakonera handiko zangak egin behar izan dituzte -4,5 metrotik gorakoak zenbait puntutan- ibaia hainbat bidegurutzetan zeharkatzeko, eta ibaiaren, errepidearen eta bideen arteko espazioa estua zen. Gainera, obrek iraun duten bitartean, dauden sareak funtzionamenduan mantendu behar izan dira, edo kutsatuta egon zitezkeen lurzoruetan esku hartu behar izan dute.

### Ego ibaiaren ingurumena berreskuratzea

Uraren Euskal Agentziak gogora ekarri duenez, jarduketa horien guztien helburua ibaien egoera ekologikoa hobetzea da, eta isurketen presioak pixkanaka murriztu. "Goitondo saneamendu-sistemara konektatzeari esker, nabarmen egin daiteke aurrera Ego ibaira eta haren ibaiadarretara egiten diren isurketak ezabatzeko; ingurumena berreskuratzeke oinarriak ezarriko dira, eta plangintza hidrológicoan ezarritako kalitate-helburuak bete".

Uda bizi,  
euskara eroso  
ikasten



## KALTXANGO AEK EUSKALTEGIA

IKASTARO TRINKOAK: EKAINA | UZTAILA | IRAILA

**Ekainaren 26tik uztailaren 23ra**

Izena emateko azken eguna: ekainaren 19a

Goizez: 09:00etatik 13:00etara

**Irailaren 1etik 28ra**

Izena emateko azken eguna: uztailaren 20a

Goizez zein arratsaldez

**Azterketak URRIAN**

**DIRUZ LAGUNDUAK**

**ADI!**

**26-27 ikasturterako aurrematrikula egiteko aukera  
Maiatzaren 5etik ekainaren 30era**

Zearkale 16, behea - 48260 Ermua  
607 623 961 · kaltxango@aek.eus

UDA KO EUSKARA-IKASTAROAK



673 200 100 / 946 464 000  
www.aek.eus





Martzel Nogales, aureskua egin zioten Gazte Alai dantza taldekoekin. JESUS NOGALES



Maidar Mojon, pregoia botatzear. UDALA



Gorka Mojon, txupina bota berritan. VALENTIN MUGARZA MARTINEZ

## Andra Mari jaiak hasteko, Alkate Txiki bila

Datorren eguaztenean itxiko dute izen-ematea

### Ander Gomez

Urriko Jaiak jende gehiago batu ohi duten arren, abuztu betean ospatzen diren andramarixek dira Mallabiko jai nagusiak. Hiru egunez ospatzen dira: azken biak santutegiari lotuta daude, abuztuaren 15eko Andra Mari Eguna eta 16ko San Roke; lehenengoa, Umeen Eguna, gazte-txoenentzako puzgarri, musika, jolas eta aisialdiko ekintza ugari biltzen dituen egitarauarekin.

Egun horretan, urtean zehar nabarmentzen zen edo aitortza egin nahi zioten talde edo norbanako bati ematen zioten jaiak inauguratzeko ardura. Baina 2012an, eta, batik bat, eurei zuzendutako eguna izanik, umeek pregoilari propioa izan behar zutela erabaki zuen Udalak. Ideia inguruko herrietako egitarauak begiratuta atera zuten; zehazki, Otxandioko jaietatik. Garai hartan alkate zen Mila Mondragonen esanetan, "Alkate Txiki delakoa

sortu zen, garrantzitsua delako gaztetatik jaietan parte hartzea eta erakundeak ezagutzen hastea, etorkizunean horiek gidatu eta zuzenduko dituzten herritarrak izango baitira". Hala, arratsaldekoaz gain, goizeko txupinazoaren ohitura ere ezarri zen. Gorka Mojon izan zen lehena, eta, geroztik, beste ume askok izan dute egun batez alkate izateko aukera. Batzuk jaietako zapia lepoan,



Araitz Katarain, Mila Mondragon alkate ohiarekin. V. MUGARZA

bestetzuk kapela, kapa eta guzti... denak alkatearengandik jasotako aginte-makila eskuan.

Azken urteetan, deialdia egin arren, parte-hartzea jaitasi egin da, edo ez da umerik aurkeztu. Eskolakoek adierazi dute arrazoi nagusia ume falta dela: "Uda sasoa izanik, asko eta asko kanpoan daude, oporretan". Gutxi batzuk, ilusioa egiten dien arren, lotsagatik edo urduritasunagatik ez dira ausartzen, baina Udalak gogorarazi du inskripzioak binaka zein bikoteka egin daitezkeela, lagun artean esperientzia atseginagoa izan dadin. Izen-emateak ekainaren 10era arte egongo dira zabalik, eta LHko ikasleek eman ahalko dute, eskolan bertan.




Manex Astarloa, aginte-makila jasotzen Igor Agirre alkatearen eskutik. UDALA



MAIDER MOJON MENDEZ  
ALKATE TXIKI 2018AN


"Anaiak eta biok primeran pasatu genuen. Nire kasuan, egun osoa lagunekin eman nuen, eta une oro makila eskuan izan nuen. Inportante sentitu nintzen eta gozoki asko irabazi nituen; egia esatearren, momentuan azken hori gustatu zitzaidan gehien".



MARTZEL NOGALES DE MIGUEL  
ALKATE TXIKI 2017 ETA 2019AN

"Ilusio handia egiten zidalako eman nuen izena, eta tokatu egin zitzaidan. Urduri samar egon nintzen, baina ikaragarri gustatu zitzaidan esperientzia:

alkate izatea, txupina botatzea, pregoia, egiten dizuten aureskua... Garrantzitsu sentitzen zara. Hurrengo urtean saiatu nintzen, baina ez zitzaidan tokatu; bai, ordea, 2019an, eta errepikatu egin nuen. Umeak izena ematera animatuko nituzke; oso polita da herriko jaiak inauguratzea!



MANEX ASTARLOA IRAETA  
ALKATE TXIKI 2015EAN

"Amaren jaioterrian [Ordiziako festetan] ezagutu nuen, eta iruditzen zitzaidan kristorena izango zela pribilegio batzuk izatea; txupinazoa botatzea, adibidez. Umeak izena ematera animatuko nituzke, esperientzia bakarra izango da haien bizitzan. Hori bai, goitik behera jantzi nintzen ni, eta hori bai ez diedala inondik inora gomendatuko, oraindik gogoan daukat zer nolako beroa pasatu nuen...".

## Kantuz loratu dute udaberria

Mendibil Abesbatzak Udaberriko kontzertua eman zuen zapatuan, elizan. Aurtengo talde gonbidatua Buhaminak izan zen, Baionako emakumezkoen korua. Zuberoko kantek eta pastorelek osatu zuten euren errepertorioa; mallabitarrena, berriz, euskal kanta klasikoek, gehienbat, baina baita erdal eta afrikar banak. Hogeia lagun pasak kan-



JARE LANDA ETA EIRE MARKINA

tatu zuten abesbatza bakoitzean, eta Gazte Alai dantza taldeko 9 eta 12 urte arteko hamar neska-mutil gehitu zitzaizkien haiei.

Galtza zuriak eta txapel gorria soinean, txotxongilo dantza egin zuten, koru bien ahotsez lagun-duta.

## Ander Martinen omenezko frontenis txapelketa mistoa jokatuko da gaur

Iaz, Urriko Jaietako ohiko elizpeko txapelketak *Ander Martin* izena hartu zuen, uztailean zendutako pilotari eta pilotazale mallabitarren omenez. Martxoan, Borrokalari Eguna ospatu zen, kirol eta kultur erakustaldiz beteriko egun osoko jaiak. Orain, Martin II.aren kirolzale-tasunari, komunitatearekin zuen loturari eta herriak zion esti-

muari balioa emateko, memoria sortu du AD Mallabia FTK. Frontenis txapelketa mistoa izango da, eta, momentuz, zortzi bikotek eman dute izena. Gaur jokatuko da, ekainak 5, pilotalekuan, 18:30ean hasita. Txapelak eta garaikurrak egongo dira irabazleentzat, eta partaide guztiek oroigarri bana jasoko dute.

# Udalak 1.416.244 euroko diru-gerakina duela jakinarazi zuten osoko bilkuran

Udalaren kontu orokorra aho batez onartu zuten udal ordezkariak; bertan jasotako diru-gerakina Olaldea eta SAPA proiektu estrategikoetarako zaindu beharra dagoela azpimarratu zuten Unai Larreategi alkateak

**Ubane Madera Zangitu** SORALUZE Herenegun, eguaztena, 2026ko lehen osoko bilkura egin zuen Soralezeko udalbatzak.

Udalak idazkari propioa du faltan 2026a ezker. Ahaleginak egin arren, ez du berririk lortu, oraingo, eta, hura izendatu arte, azken urteotan idazkari-lanak egin dituenak dihardu behin-behineko idazkari-lan batzuk egiten. Testuinguru horretan egin da urteko lehen osoko bilkura orain, ekainean.

## Gai ekonomiko esanguratsuak

Udalbatzarrari berari dagokionez, bederatzi puntu izan ziren mahai gainean. Horietatik hiru kontu ekonomikoekin lotutakoak izan ziren; tartean, "garrantzi berezia" zuten puntu bat: Udal Gobernuak 2025eko aurrekontuaren kontu orokorra onartzea.

Bilkuran bertan azpimarratu zuten, "2025eko udal egoera finantzarioa azaltzen duten adierazleak jasotzen dira bertan; besteak beste, garrantzi berezia duen diruzaintza-gerakina: ekitaldi ekonomikoaren amaieran geratzen den dirua".

Udal ordezkari politikoen aho batez onartu zuten puntu hori,



Ordezkaritza politikoa, osoko bilkuran, eguaztenez. U.M.Z.

baina oposizioko taldeek zenbait ekarpen edo gogorarazpen egin zituzten.

## Gerakina, "altxorra"

Udalaren gerakinari dagokionez, Unai Larreategi alkateak jakinarazi zuen 2025eko aurrekontuaren likidazioak 2.144.920,77 euroko diruzaintza-gerakina eman duela. Baina gaineratu zuen gauzateke daudela zenbait inbertsio, Hirigintzakoak, besteak beste, eta faltan daudela beste batzuk: "Aurrekontuetan hartutako konpromisoen edo sortu

diren premia berrien ondorio, berba egindakoak eta adostutakoak". Hori horrela, alkateak ohartarazi zuen 2025eko soberrakina murriztagoa izan dela.

## Komunak, futbol zelaia...

Proiektu horien artean, honako hauek zerrendatu zituen alkateak: "Herriguneko oinezkotze sistema berria, herrian zehar asfaltatze lanak egiteko, Zeleta 4ko inguruaren berrurbanizazioa, Solongoeneko zentral hidroelektrikoaren funtzionamendua hobetzeko inbertsioak, Soralezeko

erraldoiak eta konpartsa, Mendigaineko kudeaketa-planaren garapena, Txurruken auzoko urbanizazioa, herriguneko komun publikoak, Sagarrerrekako herri sarrerako segurtasun-kamerak eta futbol zelaiko belarren aldaketa. Proiektu horiek guztiak dagoeneko abian daude edota datozen asteetan jarriko dira martxan. Proiektu horiek beharrezko diru-zuzkiduraz hornitu ostean, diruzaintza-gerakina 1.416.244,97 euro garbi litzateke".

Azken gerakin hori "altxor" moduan aurkeztu zuen alkateak. Olaldeari eta SAPAri erreferentzia eginez, esan zuen epe ertainera begira aurreikusita daudela hainbat "proiektu estrategiko", eta "argi luzeekin" joan eta gerakina den "altxortxo" hori proiektu horietarako zaindu beharra dagoela azpimarratu zuten, "hauteskundeententazioetan" jausi barik.

Halaber, puntu horretan, Unai Larreategi alkateak esan zuen Udalaren txosten ekonomikoaren arabera iazko ekitaldi aurrekontuak %76,24ko exekuzio-maila duela dioen arren, portzentaje hori urte anitzeko Ezozibidea Berritzen eta Olaldeko proiektuen eraginaren ondorio ere badela: "Bi proiektu handi horien eragina kontuan izan gabe, aurrekontuaren exekuzio maila %94an kokatuko litzateke".

## Oposizioaren ekarpenak

Oposizioaren txandan, EAJ-PNVko bozeramaile Iker Aldazabalek gogora ekarri zuen jeltzaleek 2026ko aurrekontuari hainbat ekarpen egin zizkiotela eta egiteke daudela oraindik. Hiru azpimarratu zituen: SAPAren bigarren fasea, frontoiko erakinararen irisgarritasuna bermatzeko arrapala eta zenbait terre-

no erostea. Oposizioburuak urtea bukatu aurretik horien berri jasotzeko nahia partekatu eta ekarpenak egiten segitzeko asmoa azaldu zuen.


Ildo beretik, Patricia Borinaga bozeramaile sozialistak esan zuen ondo iruditzen zaiola adostutako proiektuak gauzatea, baina eskatu zuen "bere momentuan aurrekontuetarako adostutako" proiektuak garatea.


## Eskariak eta galderak

Gai esanguratsu horien gain, eguaztenezko batzarrean beste puntu batzuk ere izan zituzten hizpide udal ordezkariak, baina batzarreko punturik luzeena azkena izan zen, eskari eta galderena. Izan ere, hura baliatuta, Iker Aldazabal jeltzaleak beste hiru gai esanguratsu mahaigaineratu zituen, eta udal ordezkariak haien inguruan jardun zuten: Pascual Churrucako etxebizitzaren proiektua eta Olaldeko eremu urbanistikoaren zertan diren eta herrian dagoen apartakaleku gabeziaren arazoa. Informazio gehiago [Barrena.eus](http://Barrena.eus) atarian dago.

**Idazkari barik dago Soralezeko Udala, eta, testuinguru horretan, lehen bilkura ekainean izan da**

**Soberakinaren kopuru handi bat aurrekontuetan onartutako hainbat proiektuetarako da**

 **ELIZPE**  
HORTZ KLINIKA  
Tel. 943 75 25 67



 **Elektrizitatea**  
**Iturgintza**  
**Igeltseritza**  
**Pintura**  
**EXGA S.L.** 679 623 584  
Soraluze

 **IZAGUIRRE**  
Igeltseritza  
Eraikin berriak • Kalitateko emaitza  
Erreformatuak • Era guztietako igeltseritza  
50 urteko esperientzia • 610 638 913



 **ALBISUA**  
TAILER MEKANIKOA  
Mekanizatutako piezak • Erremintak  
Mendiola Industrialdea 14-4 • 161 P.K.  
Tel. 943 75 21 42 • Fax 943 75 24 12  
E-mail [albisua@albisua.net](mailto:albisua@albisua.net)

**aras**  
zehaztasun handiko piezak  
Mendiola Industrialdea 19  
Tel. 943 75 17 36 • 943 75 18 03  
Fax 943 75 22 95  
[aras@tornilleriaaras.com](mailto:aras@tornilleriaaras.com)  
[www.tornilleriaaras.com](http://www.tornilleriaaras.com)

**Armendi Jatetxea**  
Sukalde tradizionala  
Eguneko menua  
Asteburuetan menu berezia  
Karta  
Burduntzian erretako bildotsa  
Etxeko fritoak  
Souflea  
Tel.: 943 75 10 02



**Batzoki**  
BAR  
Asteburuetako menua,  
plater konbinatuak...  
Plaza Zaharra (Soraluze) Erreserbak: 638 91 15 97

**Criado**  
Fruitategia Urdaitegia  
• Enkarguak Whatsapppe  
• Etxerako zerbitzua  
• Iberikoak & delicatessen  
Astelehenetik ostiralera:  
09:00-13:00 eta 17:00-20:00  
Larunbatak: 09:00-13:00  
629 958 536



## "Aspaldian egindako agerraldirik garrantzitsuen" egin nahi du Sarek

Arrasaten egin du hitzordua, biharko, zapatua, eta Sorluzetik ere bertaratuko dira

**Ubane Madera Zangitu** SORALUZE

Biharko, zapatua, euskal presoan aldeko Sare eta Etxerat mugimenduek hitzordua egin dute, "garrantzia handia" duen "albis-tea elkarrekin publiko egiteko".

Arrasaten izango da hitzordua hori, 11:30ean, Monterron parkean, eta "aspaldian egindako agerraldirik garrantzitsuen" eta jendetsuen izango dela iragarri dute. Sareren asmoa da 600 bat lagun elkartzea.

### Herritarrei deia

Horren harira, bertaratzeko deialdi zabala egin diete, bereziki, herritarrei: "Alderdiei, sindikatuari, eragileei eta, bereziki, herritarrei. Zurgin, irakasle, mediku, iturgin edo al-baitari, urtarrileko manifestazioan, hondartzetako mobilizazioan edo herriz herri egin ohi ditugun azken ostiraletako



Euskal presoan aldeko elkarretaratzea, joan den barikuan. U.M.Z.

mobilizazioetan parte hartzen duzuen herritar guztiakin konpartitu nahi dugu momentua. Haur, gazte zein heldu, guztion presentzia ezinbestekoa izango da mugarriz izan nahi duen agerraldian".

### Sorluzetik ere bai

Hain justu, euskal presoan eskubideen alde joan den barikuan Plaza Barixan egin zen elkarretaratzearen testuinguruan, biharko hitzordua nabarmendu zuten Sorluzen ere, eta berta-

ratzeko asmoa partekatu zuten. Jakinarazi zuten, urrunagoko herrietatik autobusak propio antolatuko dira Arrasateko ekitaldirako. Sorluzetik, berriz, garraio publikoa zein auto partikularrak baliatuta joango dira.

### Esperantza etorkizunarekiko

Arrasateko hitzordua "presoen, iheslarien eta deportatuen auziaren behin betiko konponbidearen" testuinguruan jarri dute, berretsita "konponbidea ezinbestekoa dela bake iraunkor eta elkarbizitza justu baten erakuntzan".

Ildo horretan, etxeratze prozesuak aurrera jarraitzen duela adierazi du Sarek, eta horren erakusgarri aipatu du EPPK-ko 100 presoren langa gainditu izana eta 97tik 60k kalera ateratzeko aukera izatea; hortaz, 37k jarraitzen dute erregimen itxian: "Nahiz eta zigorraren azken urteak etxean betetzeko baldintzak betetzen dituzten".

Etorkizunari dagokionez, berriz, esperantzaz begiratzen diote hari, datozen hilabeteak "joan diren hilabeteak bezain erabakigarriak izatea" espero izanda.

## Bihar, zapatua, Triatoloia VI. aldiak girotuko du erdigunea, eguerditik aurrera

Erdigunea 11:00etarako itxiko dute, eta igerilekua, berriz, 11:30ean

**U.M.Z.** SORALUZE

Bihar, 10:30 alderako elkartuko dira Triatoloia VI. seigarren aldiaren parte hartuko duten gazteak eta haien lagunak Zubi Nagusian. 50etik gora pertsona elkartuko dira, haietatik 48 lagun lehiatuko baitira Triatoloian, eta haiekin batera lagun gehiago ibiliko dira ibilbidea zaindu, lehiakideak animatu eta beste-lakoak egiten.

### Erdigunea eta igerilekua itxi

Triatoloia bera 11:30ean hasiko da, eta, segurtasuna bermatzeko, 11:00etarako itxi egingo du erdigunea Udaltzaingoak; zapatu normal batean baino ordu-bete lehenago, hain justu. Era berean, 11:30erako itxi egingo dute igerilekua erabiltzaileen-dako, Triatoloia VI. lehen proba 300 metro igeri egitea izango baita.

### Balkoia eta txaranga

Antolatzaileen kalkuluen arabera, ordubete inguru iraungo dute kirol-probek: igeriketa – igerilekuan 300 metro–, bizikleta –Osintxuraino– eta lasterketa –erdiguneari bi buelta–.

Esan bezala, 48 lagun lehiatuko dira, eta sei laguneko zortzi taldetan antolatuko dira. Hala, zortzi talde horiek bitan banatu eta lau taldek egingo dituzte hiru probak lehenengo eta beste laurak ondoren.

Aurreikuspena da 12:30 ingururako ailegatuko direla azken korrikalariak Zubi Nagusiko helmugara, eta segidan egingo dute sari-banaketa. Ondoren, Batzokian bazkalduko dute elkarrekin, eta 18:45ean, berriz, Triatoloiko txapeladunek gainerakoen aitortza jasoko dute, udaletxeko balkoira igota –eguztenean konpondu zuten balkoia–.

Omenaldi kontuak eginda, parrandarekin segituko dute. 19:00etan ekingo dio martxari Latuna Bando txarangak, ordu txikiak arte.



Iazko Triatoloiko partaideak, kirol-probak bukatu eta gero, Zubi Nagusian. U.M.Z.

## Txerri-masail lehiaketa egin nahi dute Itxaropenan

Itxaropena Erretiratuen Elkar-teak jakinarazi duenez, ekainaren 26rako txerri-masail lehiaketa egin nahi dute. Lehiaketak aurrera egiteko, gutxienez bost bikotek eman behar dute izena. Eta, halaber, lehiaketak aurrera egiten badu, kozinatutako masailekin pintxoak partituko dituzte egunean bertan. Dagoeneko zabaldu dute izen-ematea, ekainaren 18ra arte. Izen-ematea betetzen bada, ekimenari buruzko zehaztasunak lotzen eta jakinarazten joango dira.

Txerri-masail lehiaketa antolatzekeo ideia Gipuzkoako erretiratu eta pentsiodunen Agijupens elkartetik dator. Elkarrekin horrek Gipuzkoa mailan egin behar du txerri-masail lehiaketa, eta aukera dago eskualdeko parte hartzekeo. Debarreneko gainerrako herrietan ere jendea apuntatzen bada, beste kanporaketa bat egingo dute, eta hura irabazten duena Arrasaten jokatu-ko den lurralde mailako finale-ra joango da, irailean.

## Basalgotik zentral eolikoaren kontrako batzarrera deitu dute

Ekainaren 10erako, eguaztena, batzarra antolatu du Basalgotik zentral eolikoaren kontrako herriko plataformak. Helburua da proiektuari buruz dauden "azken berriak" konpartitzea. Eta hemendik aurrera zer egingo duten ere landu nahi dute. "Interesa duen jende gutzia dago gonbidatuta". 19:00etan da hitzordua, gatzetxean.

## Ekainean, surf egitera eta Jump Yard-era joateko irteerak

Hilaren 11rako, LHko 5 eta 6. mailakoentzat Debara surf egitera joateko irteera antolatu du Sorluzeko Eskola Kirolak. Prezioa da eskola kiroleko ikasleentzat 28 euro eta besteentzat, 35. Eta 18an, Derioko Jump Yard-era joateko aukera dute LHko 3, 4, 5 eta 6. mailakoek. Prezioa da eskola kirolekoentzat 26 euro eta besteentzat, 33.



Sora Futbol Taldeko kide ia-ia guztiak, Plaza Barrixan, zapatuan.




Eskola kirolekoak, igel-jokoan, SAPAn.



Eskola kirolaren ikasturte amaierako jaiak, dominak zintzilik, zapatuan, Plaza Barrixan.



Sorakoak, udaletxeko balkoian, zapatuan.



Dantzari gazteak, antzokian, barikuan.



Dantza garaikideko dantzariak, irakaslea eta laguntzaileak, antzokiko ikuskizunaren amaieran. ARGAZKIAK: U.M.Z.

## Ikasturte eta denboraldi amaiera jendetsuak futboleant, dantzan eta eskola kirolean

Barikuan erabateko arrakastarekin taularatu zuten dantza garaikideko ikuskizuna antzokian; zapatu goizean, giro sanoan agurtu zuten ikasturtea eskola kirolean; eta zapatuan, baita ere, nabarmen ikusi zen herrian dagoen futbol harrobi sendoa

### Areto futbolekoek lehen fasearen erdia baino gehiago egin dute

U.M.Z. SORALUZE

Gaur, barikua, eta bihar, areto futbol txapelketako bosgarren jardunaldiko sei partiduak jokatuko dira, Araneko frontoian.

Gaur, 20:30ean, A taldeko eki-  
poek jokatuko dute. Lehen partidua 20:30ean hasiko da, eta 22:30ean jokatuko dute azkena. Bihar, berriz, 10:00etan hasiko da lehen partidua eta 12:00etan

jokatuko da azkena. Asteburu honetako jardunaldia bukatuta, beste bi asteburu faltako dira lehen fasea, ligaxka, bukatu eta kanporaketak hasteko.

Hain zuzen, ekainaren 27ko asteburuan jokatuko dituzte final-zortzirenak. Hortik aurrerako kanporaketetarako, berriz, gurutzaketak egingo dituzte bi taldeetako ekipoen artean. Lehen

sailkatua zuzenean pasatuko da final-laurdenetara, bigarrenak zazpigarrenaren kontra jokatuko du, hirugarrenak laugarrenaren kontra eta laugarrenak bosgarrenaren kontra.

Gogoan izan behar da txapelketaren azken txanpan taldeak ez direla bideratuko Kopako edo Ligako kanporaketetara; sailkapen bakarra izango da eta hirugarren eta laugarren postuak erabakitze partidua zein txapelketako finala herriko jaietako txupinazoaren aurretik eta ondoren jokatuko dira.

### Ubane Madera Zangitu SORALUZE

Asteotan, bata bestearen errenkadan egingo dituzte ikasturte-denboraldi amaierako ekitaldiak. Dantza garaikidekoek, eskola kirolekoek eta futbolekoek egin dute, eta berriari begira dabilta.

### Sora eta eskola kirola

Futbolaren kasuan, laster egingo duten batzar orokorrean argituko dituzte zenbait galdegai; adibidez, gazteen bi talde izango ote diren 2026-2027ko denboraldian.

Eskola kirolari dagokionez, berriz, zabalik dago 2026-2027rako

matrikulazioa. Kuotak izango dira 60 euro (LH3-LH6) eta 30 euro (LH1-2). Bestalde, zabalik dago ere datorren astean egingo dituzten irteerretarako izen-emateak; surf egitera eta Leioako Jump Yard parkera joango dira.

### Dantzan izen-ematea zabalik

Azkenik, dantzaren kasuan, datorren urtean dantza garaikidea eta euskal dantzak eskainiko dituzte batera. Irene Vazquez eta Miren Hazas izango dira irakasleak. Ekainaren 15ean zabalduko dute matrikulazioa.



Goenetxetxo taldeko jokalaria, ekipoaren banderarekin. AU.M.Z.



Herritarrak dantzan iazko Erromerixa Egunean. PIL-PILEAN

## Eingo taldeak joko du ekainaren 13ko Erromerixa Egunean

Dantzazaleek eta musikariek egun osoko jaija egingo dute Ezoziko plazan

**Egoitz Unamuno Loidi** SORALUZE  
Ekainaren bigarren zapatuan, urtero legez, euskal dantzazaleak eta musikariak batuko dira Ezoziko plazan, Urrats dantza taldeak antolatuta egingo duten 17. Erromerixa Egunean.

Eguerdian hasiko da dantzazaleen jaija, bertaraten diren guztiei jan-edana banatuta. Segidan, ordu bata aldera, ekingo diote dantzari, eta ez dituzte nolanhiko laguntzaileak izango; izan ere, beste behin, "luxuzko" musikari multzoa batuko da Ezoziko plazan: Deba baila-

rako arrabitarriak, Diadar taldeko txistulariak eta herriko trikitilariak, besteak beste. Ordu bete pasatxoko saioan hainbat motatako plaza dantzak dantzatu dituzte: mutxikoak, fandangak eta arin arinak, banangoa, polkak, korroak... "Saio irekia izango da, edozeinek parte hartzeko modukoa", adierazi dute dantza taldeko kideek.

Eguerdiko saioaren ostean, 15:00 aldera, Ezoziko ermitaren ataripean batuko dira, goizean zehar boluntarioek bertan prestatutako paella jateko. Bazkarian

parte hartzeko aurrez izena eman behar da, Iratxo gozodendan 15 euro ordainduta –izen ematea zabalik dago–. Bazkalostean, ohitura duten legez, musikariek eta bazkaltiarrek kantuan egingo dute elkarrekin.

### Arratsaldean, Eingo taldea, sagardoa eta gazta

Arratsaldean ere segida izango du egitarauak. 18:30ean, eguneko dantza saio nagusia hasiko da, Eingo erromeri talde ezagunak gidatuta. Iaz moduan, euskal dantzak eta kantuak uztar-

tuko dituzte ordu eta erdi pasatxo iraungo duen emanaldian. Tartean, larrain dantza ezaguna ere dantzatuko dute, herriko gaiteroek lagunduta.

Aurretik eta bitartean, plaza-joaten direnek Lizagarreko sagardoa eta Egotzako gazta dastatu ahal izango dituzte, eta, 19:00etan, bolatokia zabalduko dute, Ezoziko bola-premioa jokatzeke.

Iaz egun ederra pasatu genuen elkarrekin, eta aurten ere gonbidatu nahi ditugu herriko eta inguruetako dantzazale eta eus-

kaltzaleak, bakarka, familian edo kuadrillan etor daitezten Ezoziko plazara. Plaza ederra da dantzarako, eta puntako musikariek batera gozatu ederra hartuko dugu aurten ere", adierazi dute dantza taldekoek.

**Bazkaritarako izen ematea zabalik dago Iratxo gozo-dendan: entsalada, paella eta postrea, 15 eurotan**

## Plaza dantzen ikastaroa, amaitzear

Ekainean amaituko da aurtengo plaza dantzen ikastaroa. Guztira, hogeita bost herritarrek parte hartu dute ikastaroan eta hilabeteotan hainbat dantza praktikatu dituzte Eibarko Kezka dantza taldeko dantzari eta irakasle Miren Hazasekin batera.



BARRENA

## 1989 eta 2008 arteko rallyetako argazkiak ikusgai kiroldegian

Astelehenetik ikusgai dago *Argazki rallyak 1989-2008 Diapositiba urteak* izeneko erakusketa kiroldegian.

Bertan, rallyaren lehen edizioetako 62 argazki ipini dituzte erakusgai, erdiak inprimatuta eta beste erdiak diapositibetan proiektatuta. Haietan ageri dira herriko espazio eta herritar ugari. Tartean, 1997an Josetxo Unamunori bere ardangelan porroia betetzen ateratako argazki ederra. Erakusketa zabalik izango da ekainaren 20ra arte.



KONTRARGI

## Zabalik da jaietako kartel lehiaketara aurkezteko epea

Udaleko Kultura batzordeak kartel lehiaketa antolatu du herriko jaien irudia aukeratzeko. Lehiaketa horretan helduen zein gaztetxoek mailak bereizi dituzte.

Parte hartu nahi dutenek 35x45 zentimetroko kartela aurkeztu beharko dute, herriko bizitzaren zenbait alderdiri buruzko alegorikekin. Baldintzetan zehaztu dutenez, epaimahaia ez du onartuko adimen artifizialarekin egindako lanik.

Lanak udaletzeko bulegoan aurkeztu behar dira, ekainaren 26an, 14:00ak aurretik. Irabazleak 300 euroko saria jasoko du eta haren lana jaietako programan argitaratuko dute.

**ODR**  
ATEAK ETA LEHIOAK  
ALUMINIO ETA PVC AROZTEGIA  
T. 662 234 609  
Sagar Etxeko Kalea 2 - 20960 SORALUZE  
e-mail: odrlehiak@gmail.com

**MENDIZABAL**  
okindegia  
Ogja - Prentsa - Gozarriak  
Astelehenetik ostegunera:  
08:00 - 13:00  
17:00 - 19:30  
Ostiralak  
08:00 - 13:00  
Larunbatak  
08:30 - 13:30  
Kalebarren 10  
Tel.: 943 75 13 99

**SORALUZE MOTOR**  
Mendiola Ind. 13  
Sorluze  
474 554 817 - 943 75 21 38  
itv

## Kulunka Dantza Eskolako kideek ikasturte bukaerako jaialdia egingo dute bihar

90 dantzari ariko dira emanaldian; Aldats pilotalekuan izango da, 22:00etan

### Izaro Aulestiarte

Aldats pilotalekuak Kulunka taldearen ikasturte-amaierako jaialdia hartuko du bihar, larunbata. Ikuskizuna 22:00etan hasiko da, eta, antolatzaileek aurreratu dutenez, ordu eta laurden inguru iraungo du. Saioan 4 urtetik gorako 90 ikasle parte hartuko dute; tartean, baita dantzari helduek ere.

Urtero legez, "emanaldi berezia" izango dela azaldu du Alaitz Izagak, dantza eskolako irakasle eta arduradunak: "Aurten, guztira 21 koreografia taularatuko ditugu pilotalekuan. Eta publikoak hainbat estilotako dantzak ikusteko aukera izango du, bai musikalki, bai koreografi dagokienez. Denetik egongo da: dantza klasikoak, garaikideak, jazz estiloko piezak eta charlestona, besteak beste".

Aurreko urteetako harrera ona ikusita –iaz, adibidez, 450 ikusle bildu ziren pilotalekuan–, herritarrei aurten ere jaialdira bertaratzeko dei egin diete dantzariak. "Kulunkako kideok hila beteak daramatzagu emanaldi hau prestatzen. Oso pozik gaude egindako lanarekin, eta prestatu duguna herritarrei erakus-



lazko jaialdiaren irudi bat. IGOR BAROJA

teko desiratzen gaude. Beraz, gonbidatuta zaudete guztiok", gaineratu du Alaitz Izagak.

Emanaldirako sarrerak salgai daude, astelehenaz geroztik, Debako Turismo Bulegoan, lau euroan. Sarrerarik geratzen bada, bihar pilotalekuko atean ere izango dira salgai; ateak 21:40an zabalduko dituzte.

### 'Uda dantzan'

Ikasturteari amaiera borobila eman ondoren, atsedean hartuko du orain Kulunkak, baina ez da erabateko geldialdia izango; izan

ere, uztaileko *Uda dantzan* ekimena prestatu dute. Bi txandatan banatu dute egitasmoa: lehena ekainaren 29tik uztailearen 10era –LH3, LH4, LH5, LH6 eta DBH1 mailetako ikasleentzat–; eta bigarrena, uztailearen 13tik 24ra –HH5, LH1 eta LH2koentzat–. Izena emateko edo informazio gehiago jasotzeko, *kulunkadantza@hotmail.com* helbide elektronikora idatz daiteke.

Bestalde, ikasturte berrirako matrikulazioa ere zabaldu dute dagoeneko; irailaren 14an ekin go diote kurtso berriari.

## Ione Fernandezek 41. Koldo Eleizalde literatur lehiaketako bi sari lortu ditu

### I.A.

Duela hamabi urtetik Deban bizi den Ione Fernandezek (Bergara, 1987) 41. Koldo Eleizalde lehiaketako ipuin eta poesia ataletako sariak irabazi ditu, *Hutsuneak* eta *HarrAMAzkak bihotzean* lanengatik, hurrenez hurren.

Aurten, guztira, 432 lan aurkeztu dira Bergarako Udalak antolatutako sariketara, hainbat adin eta kategoriatan banatuta –ipuin idatziak, poemak, bertsoak, komikiak eta interpretazio eta kontaketa lanak–, eta horietatik 39k jaso dute aitortza. Joan den larunbatean, maiatzaren 30ean, egin zuten sari-banaketa ekitaldia, Bergarako Seminarixoa, eta bertan, lehiaketa-

ra aurkeztutako lanen aniztasuna eta kalitatea nabarmendu zituen epaimahaiak.

### 250 euroko bi bonu

2010ean edo aurretik jaiotakoei dagokien bosgarren kategorian lehiatu da Ione Fernandez; bai ipuin idatzien atalean, bai poesian. Eta bi kasuetan eskuratu du lehenengo saria, *Hutsuneak* ipuinari eta *HarrAMAzkak bihotzean* olerkiei esker. Horiek horrela, Bergarako saltokietan erabiltzeko 250 euroko bi bonu poltsikoratu ditu idazleak, sari gisa. Bergarako Udaleko Obra eta Zerbitzuetako zinegotzi Jexux Mari Telleriaren eta Euskara zinegotzi Eider Usobiagaren



Ione Fernandez, sariarekin. GOIENA

eskutik jaso zituen sariak larunbateko ekitaldian.

Ez da lehiaketa horretan Fernandez saritzen duten lehenengo aldia; izan ere, iaz bigarren saria eskuratu zuen, *Erruaren orruak* ipuinarekin.



Iratxe Etxebarria, liburuaren eskuan duela. TTAP

## '7.300 miligramo eszitalopram' liburuaren aurkezpena hilaren 11n

Kultur Elkartearen izango da ekitaldia, Iratxe Etxebarria lanaren egilea bertan dela; Jordina Arnauk gidatuko du saioa

### I.A.

Iratxe Etxebarria kazetaria (Dima, 1979) Deban izango da datorren ostegunean, ekainaren 11n, *7.300 miligramo eszitalopram* liburuaren aurkezpena. Ekitaldia 18:30ean hasiko da, Kultur Elkartearen, eta Lasturren bizi den Jordina Arnau kazetariak (La Selva del Camp, Herrialde Katalanak, 1991) egingo ditu moderatzaile-lanak.

"Udaberria helburu izan duen negu luze eta hotz baten kontakizuna da", idazlearen beraren hitzetan, *7.300 miligramo eszitalopram*. Laneko estres handiaren eraginez, gaixotu egin zen Iratxe Etxebarria duela urte batzuk, eta orduko bizipenak eta gogoetak oinarri hartuta kaleratu zuen liburuaren, 2024an. Ordurako, 20 urte baino gehiagoko ibilbide oparoa egin zuen kazetaritzan: erredaktore, atzerriko berriemakile eta ardura postuetan ibilia zen.

"Laneko estresak gaixotu ninduen. Gorputzak seinaleak bidaltzen zizkidan, baina nik ez nion neure buruari seinale haiek entzuten uzten", aitortu du Etxebarriak. Nolanahi ere, azaldu du liburuaren ez dela "krisi pertsonal baten errelatoa" soilik: "Horrez gain, aurrera begira jartzeko balio izan zidaten ikasgaiak konpartitzen ditut. Biziberritzea izan nahi du", erantsi du.

Bada, liburuan, buruko gaitzak sendatu daitezkeela erakutsi nahi du kazetariak, eta hari lagungarri egin zaizkion for-

mulak plazaratu ditu bertan. Gaur egun, haren antzeko egoeraren batean dagoen jendeari *coaching* saioak ematen aritzen da Etxebarria.

### Beste bi hitzordu

Liburu aurkezpena ez ezik, bestelako ekitaldirik ere izango da Kultur Elkartearen asteotan. Ekainaren 13an, adibidez, Bazkidearen Eguna ospatuko dute, hirugarrenez. Ostolaza Sarien banaketa-ekitaldia, herri bazkaria, *NEU: Bingo musikatu jostari bihurria* eta Skabidearen taldearen kontzertua izango dira egitarauaren osagai nagusiak. Aurten, bazkaria Arrano Elkartearen izango da, eta tiketak aurrez erosi behar direla gogorarazi dute antolatzaileek. 20 euroko menua prestatuko dute: entsalada errusiarra, piper beteak, masailak saltsan, arroz eta snea eta kafea. Sarrerak erreserbatzeko, 688 82 37 88 telefonora idatz daiteke.

Bestalde, Mirari Martiarena eta Asier Galarzaren *Norbere mundu intimo* ikuskizuna iragarri dute hilaren 19rako (20:00etan). Sarrerak salgai daude jadanik, 5 euroan, *labur.eus/norberemunduintimo* estekan.

## Bazkidearen Eguna eta 'Norbere mundu intimo' ikuskizuna iragarri dituzte ekainerako



Iazko talde-argazkia. JOXERRA LARRAÑAGA

## Arbil Elkarte Sozialak bazkari baten bueltan omenduko ditu 80 urtetik gorako bazkideak

Antolatzaileen esanetan, 82 lagun inguru elkartuko dira etziko ekitaldian

### Nerea Bedialauneta Alkorta

Urteroko ohiturari eutsiz, Arbil Elkarte Sozialak omenaldi berezia egingo die etzi, ekainak 7, aurten 80 urte edo gehiago betetzen dituzten bazkideei. Antolatzaileek jakinarazi dutenez, 82 lagun inguruk eman dute izena bazkarirako.

Hildako kideen omenezko mezarekin hasiko da jardunaldia. Elizkizuna 11:00etan izango da, Andra Mari elizan, eta,

ondoren, salda eta txorizoa emango dizkiete bertaratutakoei, Lubina elkartearen.

14:00 aldera, taldeko argazkia aterako dute Arbil elkartearen egoitza aurrean, eta ordu erdi geroago hasiko da bazkaria, elkartearen bertan. Ospakizuna borobiltzeko, omenaldia egingo diete elkarteko nagusienei; zehaztu dutenez, 94 urtetik gorako sei bazkide inguru izango dira esker oneko eki-

taldi horren protagonista nagusiak.

### Askotariko ekintzak

Arbilen ekaineko egitarauarekin bat egin dutenek, gainera, askotariko ekintzez gozatzeko aukera izango dute datozen egunotan. Besteak beste, abian dira *mindfulness* saioak; hilaren 8an egingo dute hurrengoa, hondartzan, goizeko hamaike-tan hasita.



Debadezineko kideak, Arbileko ordezkariekin eta Rebordinosekin batera. J.L.

## Debadezineko kideei gorazarre

Herritarren aisialdian eta, bereziki, adinekoen artean kultur eskaintza sustatzen egiten duten ekarpena eskertzeko, Arbil Elkarte Sozialak omenaldia egin die Debadezine zineklubeko boluntarioei. Arbilek nabarmendu du taldearen jarduna ezinbestekoa dela Deban zinemas gozatzeko jarraitzeko; izan ere, herriko aretoa aspaldi itxi bazen ere, igandero filmak doan ikusteko aukera bermatzen dute.

Ekitaldia aurreko ostegunean egin zuten, maiatzaren 30ean, eta, Jose Luis Rebordinos Zinemaldiko zuzendariak Kultur Elkartearen egin zuen hitzaldia baliatuta, Amaia Aldai, Mariaje Carrillo, Elena Egaña, Marian Garcia, Iñigo Loiola, Patxi Lopez, Mari Carmen Martinez eta Begoña Tello izan ziren omenduak.

Eta hilaren 11n, bestalde, Mirandoa burdinola eta Chilla Lantoki museoa bisitatu eta Oñatira. Aurreratu dutenez,

Mirandaola burdinola eta Chilla Lantoki museoa bisitatu eta Oñatira. Aurreratu dutenez,

## "Aho-zapore gozoarekin" bukatu dute Europako Geoparkeen Astea

Herritarren parte-hartzea "handia" izan dela nabarmendu dute antolatzaileek

### Izaro Aulestiarte

Euskal Kostaldeko Geoparkeak "aho-zapore gozoarekin" itxi berri du Europako Geoparkeen Astearen hamazazpigarren aldia. Zientzia eta surfa izan ditu ardatz aurtengo ekimenak, eta antolatzaileak gustura daude maiatzaren 22tik 30era bitartean Zumaian, Mutrikun eta Deban egin diren jarduerak izan duten harrerarekin. "Herritarren erantzuna nabarmena izan da, parte-hartze handiarekin eta ingurune naturala ikuspegi zientifikoa eta jasangarri batetik ulertzeko gero eta interes handiagoarekin", esan dute.

Debak hartu zituen, joan den asteburuan, aurtengo egitarauaren baitan antolatutako azken ekitaldiak. Ostiral arratsaldean, *Orekariak* izenburuko solasaldia egin zuten, Itsaslabarrak tabernan, EHUko irakasle eta fisika-

ri Edu Ogandok eta Ibon Oregi surf egokituko munduko txapel-dunordeak; surfaren eta orekaren arteko harremanaz aritu ziren biak ala biak, norbere lan-arlo eta bizipenetatik abiatuta. Hitzaldiaren aurretik, gainera, DJ Bon zarauztarraren saioak berotu zuen giroa terrazan. Biharamunean, aldiz, intsektuei eskainitako Biotop landa-irteera egin zuten Errotaberriko eremuan; adin orotako hogeitabat lagunek parte hartu zuten Aranzadi Zientzia Elkarte adituek gidatutako txangoan.

Ekitaldiak bukatutzat emanda, Euskal Kostaldeko Geoparkeak asteartean iragarri zuen III. Mikroipuin Lehiaketaren irabazlea. Josune Herrarteri eman diote *Geoparkeko olatuak, badoz eta badoz* gaiari buruzko narrazioerik onenaren saria.

Azaldu dutenez, ez da Herrarte saritzen duten lehenbiziko aldia, hura nagusitu baitzen orain bi urte egindako lehiaketan ere.

### Esker onez

Gustura ez ezik, antolatzaileak esker oneko ere azaldu dira Europako Geoparkeen Astearen 17. aldiak eman duenarekin. "Euskal Kostaldeko Geoparkeak berretsi egiten du zientziaren, naturaren eta gizartearen arteko loturan erreferente gisa duen eginkizuna, eta eskerrak ematen dizkie erakunde laguntzaileei, hizlariei eta parte-hartzaile guztiei", nabarmendu dute.

Bide batez, aurtengo ekimena amaitu bada ere, gogorarazi dute Geoparkearen jarduna ez dela etengo, beste hamaika ekintza antolatzen baitituzte urte osoan; *geoparkea.eus* estekan ikus daiteke eskaintza osoa.



Edu Ogando eta Ibon Oregi, joan den ostiraleko solasaldian. EUSKAL KOSTALDEKO GEOPARKEA



Biotop landa-irteera gidatua, pasa den larunbatean. EUSKAL KOSTALDEKO GEOPARKEA

## Zurrunbilok bazkideekin eta herritarrekin batera borobildu du 25. urteurren festa

Eskerrak eman eta urteurren festari buruzko balorazio oso baikorra egin dute

### Nerea Bedialauneta Alkorta

Zurrunbilo Ur Kirol Elkarteak mende laurdena bete du aurten, eta joan den larunbatean, maiatzaren 30ean, Santiago hondartzaren bueltan egindako egun osoko festa batekin ospatu zuten data berezi hori. Antolatzaileen esanetan, hitzorduak elkarte bazkide ugari eta herritar asko batu zituen.

Antolatzaileek balorazio oso positiboa egin dute, eta egun osoko egitaraua aurreikusitako moduan egin zutela nabarmendu dute: "Dena oso ondo joan zen. Eskerrak eman nahi dizkiegu parte-hartzaile guztiei eta hau guztia posible egin duten laguntzaileei".

Tag Team txapelketa berezi batekin abiatu zituzten eguneko proposamenak. Itsasoaren egoerak, ordea, ez zuen askorik lagundu, eta, olatu faltagatik, taldekako txandetan oinarritutako txapelketa egin zuten, azkenean.

Goizeko egitarauaren barruan, Ander Tolosaren surf erakusketa berezia eta skatean aritzeko aukera izan ziren hondartza aurreko aparkalekuan. Bertan, gainera, urteurrenerako propio sortutako material berria jarri



Goizeko Tag Team txapelketan parte hartu zuen talde bat. ZURRUNBILO

zuten salgai, eta, elkarte bazkideekin esanetan, "sekulako arrakasta" izan zuten kamiseta, poltsa eta bisera berriek.

### Dozenaka bazkide

Eguerdian partean, Jazztabien taldeak jazz doinuekin girotu zuten hondartza ingurua, eta ondoren, dozenaka bazkide elkarte ziren Ondargain tabernako terrazan egindako bazkarian.

Arratsaldeko jarduerak ere erantzun ona izan zuten. Antolatzaileen arabera, eguna aurrera joan ahala giroa be-

rotzen joan zen, eta jende gehiago joan zen Ondargain inguruan antolatutako ekintzetara. Haurrek eta gaztetxoek Itsaszaintza sarearen eta gaztelekuaren tailerrekin gozatu zuten; eta ausartu ziren umeek eta helduek oreka-jokoetan eta surf-taula mekanikoaren gainean probatu zituzten beren gaitasunak.

Debrass Band eta Betty Larry's taldeen kontzertuekin agurtu zuten urteurren festa; 23:00 inguruan eman zuten amaitutzat ospakizuna.

## Ekainaren 27an lehiatuko dute XII. Flysch Beltza igeri-zeharkaldia

Antolakuntzak 300 igerilaritara mugatu du parte-hartzea; hilaren 25a da izena emateko azken eguna

### N.B.A.

Eibar Igerixan Kirol Klubaren ekimenez, datorren ekainaren 27an, larunbata, jokatu da XII. Flysch Beltza igeri-zeharkaldi ezaguna.

Irteera ordua 13:00etan izango da, Mutrikuko igerileku ondoko arrapalan; handik uretaratuta, parte-hartzaileek 3.000 metro inguruko ibilbidea egin beharko dute Debako Santiago hondartzan kokatutako helmugara iristeko. Proba osatzeko gehieneko denbora bi ordukoa izango da; hori gainditzen dutenak uretatik aterako dituzte eta probatik kanpo geratuko dira, segurtasun-neurri gisa.

Zeharkaldian adin nagusiko edonork har dezake parte, federatuta egon edo ez. Gaztegoek ere parte hartzeko aukera izango dute; betiere, gurasoen edo tutoreen baimena aurkeztuta.

Antolakuntzak 300 igerilaritara mugatu du parte-hartzaileen kopurua; beraz, izen-ematea garaiz egitea gomendatu dute.

Proban parte hartzeko interes dutenek *kronoak.com* atarian eman beharko dute izena, ekainaren 25eko gauerdia baino lehen. Prezioari dagokionez, bi epe zehaztu dituzte: ekainaren 18ra bitartean izena ematen dutenek 35 euro ordaindu beharko dituzte; ekainaren 19tik 25era bitartean egiten dutenek, berriz, 45 euro.

### Autobus-zerbitzu berezia

Ohi bezala, antolakuntzak autobus-zerbitzu berezia jarriko du parte-hartzaileen eskura, Debatik irteera-puntura joan ahal izateko.

Lehen autobusa 11:15ean irtingo da Mutrikurantz, eta azkena, aldiz, 12:00etan izango da.

## Zuhatza Trail prestatzeko entrenamendu-saioak iragarri dituzte

Bi saio ireki antolatu dituzte mendi martxa eta lasterketaren ibilbidea ezagutzeko: bata, bihar; eta bestea, hilaren 20an

### I.A.

Ekainaren 27an egingo dituzte euskararen aldeko lehenbiziko Zuhatza Trail mendi martxa eta lasterketa Deban, eta, ekimena taldean prestatze aldera, bi entrenamendu-saio ireki iragarri dituzte antolatzaileek: bihar, larunbata, egingo dute lehenbizikoa; eta hilaren 20an, aldiz, bigarrena; Foruen plazatik abiatuko dira partaideak, 09:00etan.

Bestalde, Zuhatza Trail ekimena antolatzeko lanak "bide onetik" doazen arren, boluntario bila dabiltzala gogorarazi dute sustatzaileek. Laguntzeko prest daudenek Internet bidez eman dezakete izena; *barrena.eus/bereziak/zuhatzatrail* estekan, *Boluntarioak* deritzon atalean aurkituko dute horretarako propio sortu duten galdetegia. Eta, informazio gehiagorako edota zalantzak argitzeko, *zuhatzaki-*

*rola@gmail.com* posta elektronikora idatz dezakete.

Halaber, esteka berean izango dituzte salgai, astelehenera arte, Zuhatza Traileko kamisetak, helduentzat nahiz haurrentzat, eta herri bazkarirako txartelak ere bertan eskuratu daitezke.

### Egun osoko ekimena

Guztira, 300 lagunek parte hartuko dute euskararen aldeko mendi martxan eta lasterketan. Bi kirol probez harago, nolana ere, egun osoko egitaraua izango du herri ekimenak. Goiz partean, adibidez, HH4ko eta HH5eko ikasleei zuzendutako Izan Tribu jardueraren egingo dute Plaza Zaharrea, eta, sari-banaketa ekitaldiaren ondoren, *Baratxuri Zopa* herri kantaldia izango da. Bazkariak eta Mugi Panderoren erromeriak borobilduko dute eguna.

## Aizpuru eta Egaña nagusi Pala Txapelketa Azkarrean

Iruleak Emakume Pilotariak kirol klubak antolatutako urteko lehen Pala Txapelketa Azkarrek hamabi pilotari elkartu zituen maiatzaren 31n Aldats pilotalekuan. Zozketa bidez osatutako sei bikote aritu ziren lehen, eta haien artean trebeenak Amaia Aizpuru azkoitiarra eta Jone Egaña debarra izan ziren.

Ekimenak formatu oso dinamikoa izan zuen, bost minutuko partida laburrekin. Ligaxka fasearen ondoren, Amaia Aizpuru-Jone Egaña eta Marilu Albizu-Maitane Furones bikoteek lortu zuten finalerako txartela. Lehia estua izan arren, Aizpuru eta Egaña sendoago aritu ziren, eta 7-4 nagusitu ziren.



NEREA BEDIALAUNETA ALKORTA

## Paseo estaliaren ondoko oinezkoen pasabideak, itxita



N.B.A.

Astelehenaz geroztik, eta espalo berria eraikitzeko lanek iraun bitartean, itxita daude pasealeku estaliaren ondoan behin-behinean egokitutako oinezkoen bi pasabideak. Uda-

lak jakinarazi du segurtasun arrazoiengatik hartu dutela neurria eta "gehienez ere" ekainaren 22ra arte mantenduko dutela. Ordura arte, beraz, eremu haren inguruan bi

pasabide baino ez dira egongo erabilgarri oinezkoentzat: bata, tren geltokiaren parekoa, Arakistain plazan; eta bestea, zuzmardia Lersundi kalearekin lotzen duena.

## Igandean itxiko dute tokiko energia-komunitatean izena emateko epea

I.A. DEBA-ITZIAR

Astebete luzatu dute TEK Deba-Itziar energia-komunitatean izena emateko epea. Beraz, igandea, ekainak 7, izango da horretarako azken eguna. Internet bidez eman daiteke izena, [labur.eus/11wupt06](http://labur.eus/11wupt06) helbidean sartuta.

Ekimen horren bidez, etxebizitzek eta saltoki txikiek tokian bertan sortutako energia berriztagarria erabiltzeko aukera dute, autokontsumoa sustatu eta energia-hornidura eredu jasangarriago baterantz pausoak emateko helburuarekin. "Komunitatean parte hartzen dutenek energia berriztagarriaren onura izango dute, instalaziorik edo obrarik egin beharrik gabe, eta %25era

arteko aurrezkia lortu ahalko dute euren faktura elektrikoan", gogorarazi du Debako Udalak.

Azaldu dutenez, "martxa onean" doa orain arteko prozesua, "parte-hartze bikainarekin". Alazne Txurruka alkatearen esanetan, "izen-emate epea luzatzea aukera paregabea da zerbitzu hori herritar gehiagok baliatu ahal izateko. Proiektu hau debar guztiei dago zuzenduta, eta herritar guztiek dute izena emateko eta energia berriztagarrien onurak baliatzeko aukera. Ekimen horrek Debaren eta Itziarren etorkizun energetikoaren aldeko urrats garrantzitsua dakar, eta oso pozik gaude herritarren gainean piztu duen interesarekin".

## Abian da San Roke festak iragartzeko kartel lehiaketa

Sanrokeak prestatzeko lanak abian daudela jakinarazi du Debako Udalak, eta horren erakusgarri da kartel sariketaren deialdia, festak iragartzeko irudia hautatzeko helburuarekin. Parte hartu nahi duen edonork aurkeztu ahal izango du bere lana, jaietako irudi ofiziala izan dadin.

Lanak aurkezteko epea ekainaren 26an amaituko da eta irabazlea herritarrek hautatuko dute, boto bidez. Aurrez, ordea, Kultur Sailak izendatutako epaimahaiak lan batzuk aukeratuko ditu, eta irudi horiek pasako dira bozketa fasera. Egileak 500 euroko saria jasoko du. Informazio gehiagorako, deitu 943 19 28 40 telefonora.

## Bertso saioa izango da gaur iluntzean Itziarko frontoi zaharrean

I.A. ITZIAR

Itziarko Bertso Eskolaren, Auzo Udalaren eta Gazte Asanbladaren ekimenez, bertso saioa antolatu dute gaurko, ekainak 5, Itziarko frontoi zaharrean. Ekitaldia 19:30ean hasiko da, eta lau bertsolari hauek igoko dira oholtza gainera: Nerea Ibarzabal (Markina-Xemein, 1994), Alaia Martin (Oiartzun,

1987), Gorka Pagonabarraga (Durango, 2000) eta Aitor Tatiegi (Oñati, 2001).

**Sarrerak, 5 euroan**

Emanaldirako sarrerak bost euro balio du. Antolatzaileek ohartarazi dutenez, txartelak ekitaldia hasi aurreko tartean izango dira salgai, frontoi zaharreko sarreraren.



Alaia Martin, Aitor Tatiegi, Nerea Ibarzabal eta Gorka Pagonabarraga bertsolariak. A.T.

## Zuhatza Euskaltzaleon Mugimenduak batzar nagusia egingo du gaur

Debako Zuhatza elkarteak bazkideen batzarra deitu du gaurko, ostirala, Kultur Elkartearen. 19:00etan hasiko da bilera, eta iazko jardunaz, aurtengo erronkez, diru-kontuez eta zuzendaritzako aldaketaz ariko dira, besteak beste, hizketan.

Gogorarazi dutenez, aldaketa askoko urtea izan da hau Zuhatzan, elkarte eraberritze pro-

zesuan murgilduta baitabil azken hilabeteotan. Prozesu horren nondik norakoak eta etorkizunera begira adostutako dinamika berria martxoan aurkeztu zituzten, ekitaldi jendetsu batean, baina abiapuntua baino ez zen izan. Horregatik, esku artean dituzten asmo eta proiektuen berri eman nahi diete, beste behin ere, bazkideei, eta gaurko batzarrera bertaratzeko dei egin diete: "Aurrerantzean ere elkarrekin pausoak ematen jarrai dezagun". Bileraren ondoren, luntxa egongo da.

**AITOR**  
TABERNA  
Lersundi kalea 25

**atari**  
INMOBILIARIA  
943 19 22 63  
atari@atandebea.com  
www.ataridebea.com

**ARBIL**  
TABERNA

**ENGLISH SQUARE**  
SCHOOL OF ENGLISH  
Sokagin kalea 12, DEBA  
648 268 206 • info@english-square.net

**Ikastaro trinkoak ekainean eta uztailean**  
DBH eta batxilergoa  
First eta Advanced tituluak

**ONDARGAIN**  
TXIRINGITUA  
Gosariak, plater konbinatuak, pizzak, hanburgesak eta zuzeneko musika!

**IXOTU** *goi*  
BIO INSTALAZIO ELEKTRIKOAK  
AUTOMATIZAZIO, INSTALAZIO ETA  
MANTENIMENDU INDUSTRIALA  
BERGARA - 943 044 728

## IRAGARKI SAILKATUAK

## LANA

## ESKAINITZA

**Elgoibar** Adineko pertsona bat zaintzeko norbait behar dugu, 09:30etik 11:00etara eta 19:15etik 19:45era. Egutero behar dituen pilulak eman, etxea txukundu eta eguneko zentrorra lagundu beharko lioke. Titulu soziosanitarioa eskatuko da, zaintza berezia duen pertsona baita. Gizarte-segurantzian kontratua eta alta eskaintzen dira. 606 71 56 73

**Elgoibar** Abuzturako eta irailerako langile bila gabiltza, Abatetxe landexean. Garbiketa eta gosari zein afariak zerbitzatzeko pertsona behar dugu. Soldatzen gain, logela eta otorduak ere eskaintzen ditugu. Interesaturata bazau, bidali curriculum: [info@abatetxe.com](mailto:info@abatetxe.com)

**Elgoibar** Egur arte tailerrak umeei tailerrak emateko hezitzaileak behar ditu, uztailearen 20tik 24ra bitartean. Hezkuntza edo arte alorreko ikasketak eskatzen dira, eta euskara maila altua. Aisialdian esperientzia izatea ere hartuko da kontuan. Curriculum bidali [egurarte@gmail.com](mailto:egurarte@gmail.com) helbidera, ekainaren 10erako.

**Deba-Itziar** BARRENAK banatzailea behar du Deban eta Itziarren BARRENA astekaria banatzeko. Interesatuok idatzi [banaketa@barrena.eus-er](mailto:banaketa@barrena.eus-er).

## ESKAERAK

**Elgoibar.** Adinekoak zaintzeko prest. Titulu soziosanitarioa eta urteetako esperientzia. Orduka lan egiteko prest nengo. 602 49 05 65

**Elgoibar.** Adinekoak zaintzeko prest nago, asteburuetan eta jaiegunetan. Titulua daukat. 659 51 35 78

## ETXEBIZITZAK

## ALOKAIRUAN HARTU

**Elgoibar.** Etxea hartuko nuke alokairuan, Elgoibarren. Epe luzerako. 602 30 40 08

## KINTOAK

**Elgoibar.** 1956ko kintoen bazkaria ekainaren 13an. Kalegoen plazan batuko dira, 12:30ean, argazkia ateratzeko. Luntxa Ibai Ondon, eta ondoren, bazkaria Txarridunan. Interesatuok 75 euro ordaindu behar dituzte Laboral Kutxako kontu honetan, izena eta bi abizen zehaztuta: ES15 3035 0007 20 0071147446. Harremanetarako telefonoak: 696 45 50 24 (Antonio) / 630 28 63 63 (Begoña)

## ZORION AGURRAK

[www.galletiak.com](http://www.galletiak.com) 633 05 04 08

Zure une gozoetan Galletiak zurekin! Zorionak!



MENDARO

**Kilian**

Zorionak, Kilian, ekainaren 6an zortzi urte beteko dituzulako. Muxu handi bat, familiako partez.



SORALUZE

**Daniela**

Ongi etorri etxera!



DEBA

**Haizea**

Zorionak, Haizea! Urte askotarako! Udalekuetako begiraleen partez!



DEBA

**Mattin**

Bizilagunen partez... zorionak, Urbieta!



DEBA

**Aiora**

Zorionak, Aiora! Zuhatzako talde motorraren partez, ondo-ondo ospatu eta pozik bizi!



ELGOIBAR

**Lucia**

Zorionak 4 urte bete dituen etxeko sorgintxoari! Mila muxu, handiena Paulen partez! Maite zaitugu.



ELGOIBAR

**Leire eta Jon**

Zorionak, Leire eta Jon! 8 eta 11 urte! Etxeko partez, muxu handi bat.



SORALUZE

**Aiane eta Carlos**

Zorionak, Aiane eta Carlos! Segi holakoxe jator! Aurten sanandresetan bals bat plazan! San Andresko lagunak.

## Iragarki sailkatua argitaratzeko

688 76 96 57

[sailkatuak@barrena.eus](mailto:sailkatuak@barrena.eus)

[www.barrena.eus/sailkatuak](http://www.barrena.eus/sailkatuak)

- Asteazkenean 12:00ak aurretik jasotako iragarkiak argitaratuko dira, bi astez.
- Barrenak ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzunkizunik.
- Etxebizitza, garaje edo autoak saltzeko iragarkiak ordainpekoak dira. Prezioa: 10 euro. Argazkiarekin: +5 euro.

## Zorion-agurra jartzeko bideak

- "Barrena.eus"-en erabiltzailea sortu eta [barrena.eus/zorionagurra](http://barrena.eus/zorionagurra) helbidean sartu.
  - Mezua bidali Whatsapez 688 65 56 58 zenbakira edo e-postaz [zorionagurra@barrena.eus](mailto:zorionagurra@barrena.eus). Zehaztu izen-abizenak, herria, urtebetetz-eguna, adina (hautazkoa) eta testua.
  - Etorri edo deitu zure herriko bulegora.
- Epea: asteazkena 12:00ak aurretik

Zorion agurrek saria dute Barrena-n!

Argitaratzen diren zorion agurren artean Galletiak Fabrik-eko produktu pertsonalizatuak zozkatuko dira astero!

NOT BY THE BOOK

**The Red Tree**

HIZKUNTZA ESKOLA

**Beste era batean !!!**

- Matrikularik gabe
- 5-105 urte
- Prezio errealistik
- Ikasle-kopuru mugatua
- Azterketak prestatzeko beste era bat
- Mintza-praktika eta material propioak
- 20 urteko esperientzia duten irakasleak
- Eskola eguzkitsu eta gardena

☎ 943 967 226 - Jausoro plaza 1D, behea (Elgoibar)

📷 @theredtreelanguageschool

SORALUZE

## Angelines Alberdi Barrenetxea

2026ko maiatzaren 30ean hil zen, 85 urte zituela.

*Atsegina eta gertukoa izan zara;  
etxeko, senide eta lagunendako maite-maitea.  
Ez zaitugu ahaztuko*

*Zure sendia*

Familiaren izenean eskerrik asko egun hauetan gure ondoan egon zareten guztioi.



ELGOIBAR

I. urteurrena

## Jose Antonio Lasuen Gallastegui

2025eko ekainaren 3an hil zen, 78 urte zituela.

*Erakutsitako kemenak eta maitasunak  
beti iraungo du gure bihotzean.  
Zure argia ez da inoiz itzaliko  
gure oroimenean.*

*Etxekoak*

Haren oroimenez lehen urteurrenako meza izango da domekan, ekainaren 7an, 11:00etan, Elgoibarko Bartolome Deunaren parrokian. Joango zaretenoi alde zurretik eskerrak.



### Barrena eskelak: zabalkunde handiena Debabarrenean

ESKELAK JARTZEKO:  
**943 744 112 - [barrena@barrena.eus](mailto:barrena@barrena.eus)**

Bulegoak:  
**DEBA:** Ifar kalea, 12 - 943 191 383  
**ELGOIBAR:** Aita Agirre plaza, 3 - 943 744 112  
**ERMUA:** Erdikokale Zeharbidea, 2 - 943 179 350  
**SORALUZE:** Errabal, 15 - 943 751 304



## AGENDA

EMAGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKEN EGUERDIRAKO.  
943 74 41 12 / [barrena@barrena.eus](mailto:barrena@barrena.eus)

## OSTIRALA 5

- **ERMUA Erakusketa: Errekalde biziberritzeko ikasleen ideiak jasotzen dituzten maketak** Ikasturte honetako Haurren Kontseilua osatzen duten Lehen Hezkuntzako 2. eta 3. mailetako ikasleek Errekalde biziberritzeko ideiak jasotzen dituen erakusketa antolatu dute. Udaletxeko beheko solairuan, 09:00etan.
- **ERMUA Eskolabarriren Olinpiadak** 09:00etan, plazan lehen hitzordua. 10:00etan, olinpiadak Betiondon. 11:00etan, ingurumenaren eguneko ekitaldia Betiondon. 11:30ean, txokolatea eta sorpresa Betiondon. 13:30ean, etxetik ekarritako bazkaria Betiondon. 15:00etan, agurra plazan.
- **ERMUA Ikastola Eguna** Ikastetxeko hainbat gunetan: 09:00etatik 16:00etara, jolasak, bazkaria, pilota, dantzak eta abestiak. A patioan: 16:15etik 18:30era, puzgarriak, oreka-jolasak, malabarrak, DBHkoen postua, kontzertua (Begibide), bitsaren jaia eta eskulanak. B patioan:

- 16:15etik 18:15era, kirolak, eskulanak eta erakusketak. C patioan: 16:15etik 19:30era, puzgarriak, triki-pandero erakustaldia, koreografoak eta DBHkoen postua.
- **SORALUZE Tailerra: 'Kontsumo jasangarria'** Soraluze Nagusien Kontseiluak Kontsumobiderek elkarlanean antolatutako tailerra, pertsona nagusiei zuzenduta. Kalebarren 8an, 10:00etan.
- **MALLABIA LGBTIQ+ liburu interesgunea** Udalak eta Berdintasun Kontseiluak antolatuta, ekainaren 15era arte. Udal liburutegian, 16:00etatik 19:00etara.
- **DEBA Tronboi, tuba eta bonbardino entzunaldia** Agirre jauregiko Ispiluen gelan, 17:00etan.
- **SORALUZE Bingoa kalean** Ludotekak eta Gaztelekuak antolatuta. Plaza Barrizan, 17:00etan.
- **DEBA Banakako txapelketa gomazko pilotarekin** Lehen fasea: Maialen (Iruleak) - Aldazabal (Behar Zana). Aldats pilotalekuan, 18:00etan.



## ERMUA Txindurri Eguna

**OSTIRALA 5:** 20:00etan, Patxangoi elektrotzaranga herrian zehar.

**LARUNBATA 6:** 12:30ean, barrikadak; 19:00etan, 'Antifazak'; 20:00etan, Begibide erromeria-taldea. 23:00etan, DJ Galtzagorri.

**IGANDEA 7:** 11:00etan, kalejirak. 12:30ean, dantza erakustaldia. 14:00etan, bazkaria. 17:00etan, Kittu.



## ITZIAR Bertso saioa

**OSTIRALA 5:** Alaia Martin, Nerea Ibarzabal, Gorka Pagonabarraga eta Aitor Tatiegi bertsolariak parte hartuko dute. Antolatzaileak: Itziar Bertso Eskola, Itziar Auzo Udala eta Itziar Gazte Asanblada. Sarrera: 5 euro. Itziar frontoi zaharrean, 19:30ean.

## • ERMUA 'Gu ere bagara!'

Ines Bermejo artistak eta Julen Nafarrate kazetariak bultzatutako sormen-lana da. Proiektu horren helburua Getxoko LGBTIQ+ nagusien kontaktu gabeko istorioak jasotzea da, eta, aldi berean, ezagutu zer-nolakoak diren euren errealitatea eta bizipenak. Antolatzailea: Lagun Artea Emakumeen Topalekua, 18:00etan. Ekainaren 30era arte.

• **MALLABIA Ander Martinen oroimenezko I. frontenis mistoa** AD Mallabia FT eta Pelota Eskolak antolatuta. Herriko frontoian, 18:30ean.

• **MENDARO Plaza auzoari buruzko ikus-entzunezkoaren proiektzioa** Mendaroko Plaza auzoaren iraganari buruzko *Oroitzapenen kutxatik* ikus-entzunezkoaren proiektzioa. Udaletxeko udalbatza-aretoan, 18:30ean.

• **DEBA Zuhatzako bazkideen batzar orokorra** Honako gai hauek jorratuko dira batzarrean: 2025eko kudeaketaren eta diru-kontuen irakurketa eta, hala badagokio, onarpena; 2026ko aurrekontuaren irakurketa eta, hala badagokio, onarpena; egindako jardueren eta etorkizunerako aurreikuspenen aurkezpena; zuzendaritza Batzordeko karguen berritzea; eta eskariak eta galderak. Kultur Elkartearen, 19:00etan.

## • ERMUA 'Le salon des mots' frantseseko irakurketa kluba

*Premier sang* (Amelie Nothomb). Udal Liburutegian, 19:00etan.

• **ELGOIBAR Euskal dantzakoen jaialdia** Inazio Bereziartua musika eta dantza eskolako ikasleen ikasturte amaierako jaialdia. Kalegoen plazan, 19:00etan.

## • DEBA Kontzertua: Bomboclat

Ondargain tabernan, 19:30ean.

## LARUNBATA 6

• **ELGOIBAR Ermitak ezagutzeko irteera** Pello Arrieta, Javier Elortza eta Inma Mugertzarekin, herriko ermitak ezagutzeko bisita gidatua. Kalegoen plazan, 08:00etan.

• **DEBA Zuhatza Trail prestatzeko entrenamendu saioa** Foruen plazan, 09:00etan.

• **DEBA Merkatu txikia eta 'Azokatik Mahaira' tailerra** 09:00etatik 12:30era. Merkatuan bertan *Azokatik mahaira* tailerra egingo dute, 11:00etan hasita. Saioa Anne Otegi sukaldariak eta Aitziber Aizpuru nutrizionistak gidatuko dute. Hitzorduan parte hartu nahi dutenek ez dute alde zuretik izenik eman beharrik izango; saioa hasterako Plaza Zaharrera bertaratu besterik ez dute.

• **ELGOIBAR Euskadi-Nafarroako gazteen**

## eskubaloi txapelketa

Olaizaga eta IMHko kantzetan jokatu ditzute partidak, goizez. Finalak arratsaldean izango dira, Olaizaga kiroldegian, 10:00etan.

• **SORALUZE Triatoloiaren seigarren aldia** 11:30ean hasi eta ordubete inguruko kirol-festa herrikoia izango da. Iluntzean, Latuna Bando txaranga izango da eta garaileak udaletxeko balkoira igoko dira.

• **ELGOIBAR Ikastolaren Eguna** 10:30ean, diana, Kalegoen plazatik ikastolara. 11:00etan, LHkoentzat jolasak. 12:00etan, erronka. 14:30ean, bazkaria, goiko pistetan. Segidan, bingo musikatua eta marrazki lehiaketako sari banaketa. 17:00etan, Eskapaie elektrotzaranga. Goiz osoan: txosna, Kilometroetako denda, marrazki erakusketa, puzgarriak, tonbola eta HHkoentzako txokoak.

• **ERMUA 'Mahaia, musika eta giro ona' topaketa** Ermuko Jabekuntza Eskolaren egitarauaren barruan, bazkari bat partekatu eta uda aurreko une hori elkarrekin ospatuko dute. Bazkalostean, kontzertu batekin jarraituko dute. Orbe Kardinal plazan, 13:00etatik 17:00etara.

• **DEBA Debako Errealaren Lagunak Elkarte**

David Zurutuza eta Asier Riesgo jokalaririk ohie Errealaren Lagunen urrezko intsignia jarriko diete bazkariaren ondoren. Itxas-Begi elkartearen, 14:30ean.

• **MALLABIA Briska txapelketa** Izen-ematea, Mallabiko udaletxean. 10 euro bikoteko. Probalekuan, 17:00etan.

• **MALLABIA Herri kirol erakustaldia** Txondor Herri Kirol taldeak antolatuta, herri kirol erakustaldia eta umeentzako herri kirolak. Frontoian, 19:00etan.

• **DEBA Kulunkaren ikasturte amaierako jaialdia** Aldats pilotalekuan, 22:00etan.

• **SORALUZE Kontzertuak: Zero, El Exterminio de**

**la Raza del Mono eta 3 Cuervos** Gaztetxean, 22:00etan.

## IGANDEA 7

• **MALLABIA Nekazaritza eta artisautza azoka** Baserriko produktuen eta artisau-lanen erakusketa. Eguerdian, Gazte Alai dantza taldeak erakustaldia egingo du eta Jira Bira umeentzako diskoteka hasiko da 17:00etan, parkean. Plazan, 10:00etan.

• **DEBA Arbil Elkarte Sozialeko 80 urtetik gorako bazkideei omenaldia** 11:00etan, meza, hildako bazkideen alde. 14:30ean, bazkaria Arbil Elkartearen.

• **MENDARO Gazta eta artisau azoka** Herriko Enparantzan. Debarreneko gaztandegietako gaztak eta herriko sagardoa probatzeko aukera izango da. Artisauen postuak ere izango dira. 11:00etatik 14:00etara.

• **ITZIAR Bisita gidatua: 'Lastur familian'** Iraupena: ordu eta erdi. Bisitari kopuru mugatua: 30 lagun. Beharrezkoak: jantzi eta oinetako egokiak. Prezioa: 10 euro; 12 urtetik beherakoentzat, 5 euro. Lasturko San Nikolas plazan, 11:00etan. Erreserbak egiteko: [geoparkea.eus](http://geoparkea.eus).

• **MALLABIA Gazte Alai dantza taldearen emanaldia** Plazan, 13:00etan.

• **MALLABIA Jira Bira diskoteka haurrentzat** Parkean, 17:00etan.

## ASTELEHENA 8

• **DEBA Mindfulness saioa hondartzan** Arbil Elkarte Sozialak antolatuta. Santiago hondartzan, Hiru Uhinak hotelaren parean, 10:50ean –euria bada, Arbilten lokalean egingo dute ekintza–.

• **MALLABIA Hitzaldia: 'Indartu zure hezur eta muskuluak'** Jubilatuei zuzendutako hitzaldia. Hizlaria: Maite



**DEBA '7.300 miligramo eszitalopram' liburuaren aurkezpena**

**OSTEGUNA 11:** Kultur Elkartearen izango da ekitaldia, 18:30ean, Iratxe Etxebarria lanaren egilea bertan dela; Jordina Arnauk gidatuko du saioa. Iratxe Etxebarria kazetariari antzietateagatik baja hartu zuen 2022ko uztailean. Liburu horretan, "negu luze eta ilun" horri buruzko gogoetak bildu ditu: "Laneko estresak gaixotu ninduen. Gorputzak seinaleak bidaltzen zizkidan, baina nik ez nion neure buruari seinale haiek entzuten uzten".

- Gonzalez osteopata. Ondoren, txokolate-jana bazkideentzat, Jubiletxean. Kontzejuzarran, 16:30ean.
- DEBA Arimen Gaua** prestatzeko bilera irekia Kultur Elkarteko liburutegian, 19:00etan.
- ELGOIBAR Talde instrumentalen kontzertua** Musika eskolako talde instrumentalek kontzertua emango dute. Inazio Bereziartua Musika Eskolan, 19:15ean.
- ERMUA Pintxo lehiaketa** Ekainaren 14ra ospatuko da, herriko ostalaritzak antolatuta.

**ASTEARTEA 9**

- ITZIAR Irakurketa taldea –haurrak eta gazteak–: 'Joemak eta polasak'** Iñigo Astizen eta Maite Mutuberriaren *Joemak eta polasak* poesia ilustratua landuko dute. Alaine Agirre idazleak gidatuko du. Burugorri eraikineko bigarren solairuan, 17:30ean.
- DEBA Klarinete entzunaldia** Agirre jauregiko Ispiluen gelan, 18:00etan.
- MENDARO Ameikutz musika eskolako bateriak ikasleen kontzertua** San Agustin aretoan, 19:00etan.

- ITZIAR Irakurketa taldea –helduak–: 'Lakioa'** Josu Goikoetxearen *Lakioa* lana landuko dute saioan. Alaine Agirre idazleak gidatuko du. Burugorri eraikineko bigarren solairuan, 19:00etan.
- ELGOIBAR Talde instrumentalen kontzertua** Inazio Bereziartua Musika Eskolan, 19:15ean.

**ASTEAZKENA 10**

- SORALUZE Irteera: Abadia jauregia** Jendartekin proiektuaren baitan antolatutako irteera. Abadia jauregian, 10:00etan.
- DEBA Trikiti ikasleen emanaldia** Agirre jauregiko Ispiluen gelan, 17:00etan.
- MENDARO Frontenis txapelketako partiduak** Gazte Asanbladak antolatuta. Frontoian, 18:00etan.
- DEBA Mahai-ingurua: 'Tortura, nora arteko lotura? Transmisioaren erroka'** Gonbidatuak: Urko Amas Cubas (Euskal Herriko Torturatuen Sarea), Alberto Goñi Diez (Euskal Herriko Torturatuen Sarea) eta Giza Eskubideen Behatokia. Kultur Elkartearen. 19:00etan.

**OSTEGUNA 11**

- DEBA Txangoa: Legazpi-Oñati** Arbil Elkarte Sozialaren ekimenez. Mirandaolako Burdinola, Chillida Lantokia eta Fabrika ezagutzeko bisita gidatuak egingo dituzte. Oñatin bazkalduko dute partaideek, 14:30ean, eta itzulerako ordua bertan erabakiko dute. Zumardian, 09:30ean.
- DEBA Piano, biolin, gitarra, txistu eta soinu ikasleen emanaldia** Agirre jauregiko Ispiluen gelan, 17:00etan.
- MENDARO Frontenis txapelketako partiduak** Gazte Asanbladak antolatuta. Frontoian, 18:00etan.
- ELGOIBAR Kurtso bukaerako kontzertua** Inazio Bereziartua musika eskolako kurtso amaierako jaialdia. Herriko Antzokian, 19:00etan.
- ELGOIBAR Isiltasunaren eskola** Jose Cruz Igartuak emango du. Kultur Etxean, 19:00etan.

**OSTIRALA 12**

- ELGOIBAR Odol ateratzea** Txanda hartzeko: *gotatanta.eus*. Whatsappez: 623 32 84 08. Jubilatuen Biltokian, 16:30ean.



KULTURAZ, AZPEITIKO KULTUR KOOPERATIBA

**ELGOIBAR 'Sorotan Bele gogoa' kontzertua, Elgoibarko Udal Musika Bandaren eskutik**

**OSTIRALA 12:** Sorotan Bele taldearen abesti ezagunenak gogora ekarriko dituzte Elgoibarko Udal Musika Bandak urtero ekainean ematen duen kontzertu berezian. Taldeko lau kide arituko dira bandarekin: Gorka Sarriegi abeslaria, Urbil Artola gitarrista, Ritxi Salaberria baxu jolea eta Aitor Etxaniz bateriak jolea. Kalegoen plazan, 22:30ean.

**GUARDIAKO FARMAZIAK**

- 5 BARIKUA Arriola / L. Apraiz / M. Alves
  - 6 ZAPATUA Fernandez / \*Barrenetxea / L. Apraiz / I. Lecumberri / \*A. Alcalá
  - 7 DOMEKA Fernandez / L. Apraiz / I. Lecumberri
  - 8 ASTELEHENA Yudego / H. Burgoa / A. Alcalá
  - 9 MARTITZENA Oruesagasti / H. Burgoa / I. Ugarte
  - 10 EGUAZTENA Barrenetxea / H. Burgoa / A.M. Baz
  - 11 EGUENA Soto / H. Burgoa / M. Alves
  - 12 BARIKUA Garitaonandia / A. Zalduegi / I. Lecumberri
- \*09:00-14:00 / \*09:00-13:30

**2026ko botika ordutegiak, astelehenetik ostiralera:**

- Deba:** 09:00-13:45 / 16:30-19:30
- Elgoibar-Mendaro-Soraluze:** 09:00-13:00 / 16:00-20:00
- Ermua-Mallabia:** 09:00-13:30 / 16:30-20:00
- Mutriku:** 09:00-13:30 / 16:45-20:00
- Itziarko botikina:** 09:00-12:30

**GUARDIA ORDUTEGIAK**

- Egunez:** 09:00-22:00
  - Gauetz:** 22:00-09:00
- Eibarren urte guztian, egunero: Elortza (Juan Gisasola, 18-Eibar. 943 20 61 00)
- Larunbatak:**
- Elgoibar-Mendaro-Soraluze: 09:00-14:00
  - Deba-Mutriku: 09:30-13:00
  - Ermua-Mallabia: 09:00-13:30
- Igandeak eta jaiegunak:** Deba-Mutriku: 11:00-13:00

**FARMAZIAK**

- DEBA A. ZALDUEGI:** Lersundi, 20 - 669 26 22 01
- DEBA H. BURGOA:** Astillero, 2 - 667 33 88 90
- ELGOIBAR ARRIOLA:** Santa Ana, 1 - 943 74 01 40
- ELGOIBAR BARRENETXEA:** Errosario, 26 - 943 74 12 77
- ELGOIBAR GARITAONANDIA:** Uparitzaga, 5 - 943 74 11 77
- ELGOIBAR YUDEGO:** San Frantzisko, 18 - 943 74 12 93
- ERMUA A.M. BAZ:** Zearkale 2 - 943 03 17 03
- ERMUA M. ALVES:** Gipuzkoa etorbidea, 46 - 943 17 26 66
- ERMUA A. ALCALA:** Zubiaurre, 29 - 943 17 17 54
- ERMUA I. LECUMBERRI:** Zubiaurre, 9 - 943 17 00 97
- ERMUA M.I. UGARTE:** Goienkale, 11 - 943 17 05 26
- MALLABIA E. ARRONATEGI:** Mallazpi z/g - 943 17 24 14
- MENDARO FERNANDEZ:** Herriko Enparantza, 4 Garagartza - 943 75 61 42
- MUTRIKU LASUEN-ELEZGARAY:** Txurruka Tenienteak, 3 - 626 61 13 92
- MUTRIKU L. APRAIK:** Erdiko kalea, 5 - 630 05 50 97
- SORALUZE SOTO:** Rekalde, 1 - 943 75 16 38
- SORALUZE ORUESAGASTI:** Kalebarren, 9 - 943 75 13 84

**ZINEMA**

**DEBA**

KULTUR ELKARTEA  
**'Tres adioses'**  
Igandea, 7: 19:00

**EIBAR**

COLISEO ANTZOKIA  
**'Saliedo del nido'**  
Igandea, 7: 20:00.

**'He-Man y los Masters del Universo'**

Igandea, 7: 17:00, 20:00.  
Astelehena, 8: 19:30.  
**'La silla'**  
Igandea, 7: 17:00, 20:00.  
Astelehena, 8: 19:30.  
**'Love Me Tender'**  
Igandea, 7: 20:00.  
Astelehena, 8: 19:30.



He-Man y los Masters del Universo filma.

## AZKEN BERBA

### Teoria bat, praktika ugari



NEREA  
ARRIZABALAGA

*Teoria bat* abestia buruan bueltan jarri zidan Gorka Urbizuk 2024an; leloko zati batean dio, *gauzak ez dira horrela, gauzak horrelaxe daude*. Orduetik, ia entzunaldi bakoitzean, inguruan horrelaxe dauden baina horrela ez diren gauzen bilduma egiten dut, jakinda horrela daudela batzuen interesengatik.

Gauzak horrelaxe daude giza eskubideekin Palestinan, eskubide horiek aitortu zituzten NBEko 193 estatuek ezikusiarena egiten duten bitartean.

Gauzak horrelaxe daude etxebizitza alokatu edo erosteko, ezinezko. Denerako arauak jartzen dizkiguten garaian alokairuan edo erosketan dauden gehiegikeriak mugatzeko araurik ezin da ezarri? Azalpen askorik gabe asma daiteke nork eta norentzat egiten dituen arauak.

### "Asma daiteke nork eta norentzat egiten dituen arauak"

Gauzak horrelaxe daude energia berriztagarrien makroproiektuekin. Elikagai iturri, ondare eta hirietako bizimodu itogarrietatik arnasmune diren lurraldeak suntsitzeko erreparorik ez dago beharraren izenean, sobera argi dagoenean haize-errotak erraldoi, eguzki-plaka parke eta biometano-planten beharra duten bakarrak eraikiko dituzten enpresa handiak direla, izango dituzten irabaziak medio.

Tamalez, luze jarraitu dezaket; hobe izango dut abestia aldatzea eta, Fito Paezek *Shine*-n dioen bezala, *"hay que correr a estos fachos a patadas sino nadie va a ser feliz"*, eta teoriatik akziora pasa.

## BUKATZEKO

### Alkate iheslaria, urre-lapurreta eta ustelkeria antzinako Soraluzen

Herriko gaizkile eta gaiztakeria istorioak partekatu zituzten erretiratuen elkartearen

**Ubane Madera Zangitu** SORALUZE *Vidas ejemplares* izenburupean, Soraluze hainbat gaizkileri eta gaiztakeriari buruzko hitzaldia izan da Itxaropena Erretiratuen Elkartearen asteon. *Sorapedia* Soraluze entziklopedia digitala abiapuntu, Juan Carlos Astiazaran historiakaleak mamitu du orain dela 200-600 urteko hainbat gertakari eta gaizkile "eredugarriren" kontakizuna.

#### Mendeko lapurreta

Kontatu zuen, adibidez, 200 urte atzera eginda, "mendeko lapurreta" egin zutela Soraluzen, eraiki nahi zuten errepide berrirako dirua lapurtuz. Izan ere, Maltzaga beti izan da amildegia. "Milaka urtean, errepideak menditik pasa ziren: Eibartik Soraluzera Iruretik; Soraluzetik Azkoitira Irukurutzetik. 1774an, berriz, Maltzagako errepidea egiten hasi ziren. Bestetan moduan, 1777an dirua bidali zuten kontratistak ordaintzeko, urrezko txanponetan, 14-16 kilo urre, oraingo 10-20 milioi euro! Urrea banatu arte, Soraluze elizaren kutxa gotorrean gorde zuten. Baina hurrengo egunean desagertua zen. Komeriak hasi ziren orduan. Inguruko alkate guztiek parte hartu zuten pesketan. Egunetara, errudunak topatu zituzten, Leybar lehengusuak". Baina nola lortu zuten haiek kutxa gotorra bortxatzea?

Historian atzera egin behar da hori jakiteko. 1756an, gari-matxinada izan zen. Gari falta handia zegoen, eta udalkideek -legez,

aberatsak- nahiago izan zuten euren garia garesti saldu Udalak "justuki" eskaini baino. "Gosea nagusi, matxinada piztu zen. Hemen moduan, Europa osoan izan ziren erreboltak. Matxinadak gogor zapaldu ostean, Carlos III.a erregeak legea aldatu, eta, orduetik, udaletan lau aberats eta hiru pobre sartuko ziren. Soraluzen Pedro Leybar aukeratu zuten zinegotzi, 1774an, eta orduan ikasi zuen elizaren kutxa gotorraren *martxa*".

Lapurretaren historia bukatzeko, errudunak Valladolidera bidali zituzten, han epaitzeko. Salatatuko bat epaia baino lehen hil zen, baina, aberatsa ez izanik, espetxean. Leybar familiako beste laurak, berriz, Valladoliden epaitu eta zigortu zituzten.

#### Alkate iheslaria

Bestalde, alkate iheslaria ere izan zen Soraluzen: Juan Martinez Urruzcarate.

Urruzkarate/Uzkate baserrikoa zen. Soraluzen kalea eta baserriak aldi berean garatu ziren. Urruzkarate lehen baserrietakoa izan zen. Azkoitiko errege-bidearen ondoan sortu zuten, gaur egungo Bilbao-Behobia izango zena, eta inguruan baserri-multzoa bildu zen. "Urruzkaratekoak baziren nor". "1489an, Juan Martinez alkate izendatu zuten, eta, alkate zela, herriko handi-mandi batek, Juan Perez de Espillak, zirenak eta ez zirenak esan zizkion -*dixo ciertas palabras injuriosas*-. Alkateak, odol hotzekoa itxuraz, ez zuen txintik esan, baina alka-

tza laga bezain pronto lagunak bildu eta egundoko makila-salda eman zioten Espillari, hil arte. Espilla handi-mandia izanda, badaezpada, Juan Martinez Urruzcaratek Andaluzia aldera, Gaztelako eta Granadako erregeen arteko gerrara, alde egin zuen. Putinek egin izan duen moduan, orduan ere, gerran urtebete eman ez gero Gaztelako erregeak errudunak indultatu egiten zituen". Bada, sei hilabetera, Marchenilla gotorlekuan, eraso batean larriki zauritu, eta indultua aurreratu egin zioten Marti-

nezi. Herrira itzulita, beste bi bider aukeratu zuten alkate. Urruzkaratekoak baziren nor!.

#### Zuzendari ustela

Kontakizuna osatzeko, besteak beste, Soraluzeko Errege Lantegiko zuzendariaren ustelkeria kasua kontatu zuen Astiazaranek.


1644an, Domingo Zavala ordiziarra Soraluze Errege Lantegiko zuzendari izendatu zuten -ez dira nahastu behar Errege Lantegia eta Soraluzeko arma-lantegia-. Zavalaren merituak bi ziren, kapare edo noblea zela, eta aberatsa -aberatsek ez zuten lapurtzeko premiarik-. Baina hura ez zen oso zuzena. Salaketak izan, eta kontu-ikuskapenetan 54 hutsegite topatu zizkieten; "batzuk arinak, baina beste batzuk oso larriak". Hala ere, espetxera behar baino etxera bidali zuten, eta, epaiketaren zain, etxean hil zen.



U.M.Z.

### Jakin-min handia piztu zuen gaiak

Itxaropenako aretoa bete egin zen eguaztenean Soraluze gaizkileei buruzko hitzaldia entzuteko. Astiazaran hizlariak esplikatu duenez, herriko pertsonaia "eredugarriei" buruz egitea proposatuta, hura *Vidas ejemplares* komikiez akordatu zen; baina, santuen orde, gaizkileak aukeratu zituen. "Soraluzen baditugu istorio asko, ordubate baino gehiago betetzeko. Zailena hautatzea izan zen", kontatu du.



**egunean behin** ?

Batu zaitez Tokikom Ligako Barrena taldera eta parte hartu asteroko zozketan!

**3. asteko saritua: Maider Blasco (Deba)**

Saria: 'Norbere mundu intimo' umorezko ikuskizunerako bi sarrera